

hh  
hik hasi

**Cira Rodriguezi elkarrizketa**  
**Sormena eta euskal kultura bultzatuz**  
**Matematika manipulagarria DBHn**  
**Garun paralisia eta robotika hezigarria**  
**Irakasleen erronkak Euskaraldian**  
**'Kio eta Gus' praktika filosofikorako**  
**Irati Garcia Iriondo**



# PROIEKTU KOMUNITARIOAK

# Album ilustratuak



Oroitzapenak gure iraganari buruz  
kontakten ditugun istorioak dira.  
Hau da nirea.  
Eta bihurtu da gurea.  
Zurea ere izan daiteke.

**ATZAMARRA**  
Asun Agiriano  
Marina García



Batuetan, bizitzak gure ardatzetik ateratzen gaitu  
edota aterazten gaitu  
eta, orduan, KLAK egiten dugu,  
geure neurrira itzultzeko.



**KLAK**  
Maite Gurrutxaga

50  
elkar

[www.elkarargitaletxea.es](http://www.elkarargitaletxea.es)

# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## PROIEKTU KOMUNITARIOAK

Krisi ekologiko globala urruneko arazotzat hartzen baldin bada, zaila da biodibertsitatearen eta naturaren zaintzan inplikatzeko lortzea. Horregatik, gertuko inguruetik abiatzea garrantzitsua da, gertukoak ukitzen gaituelako. Hori ahalbidetzen dute proiektu komunitarioak, eta bide horretan laguntzeko prest daude HUHEZIKo irakasle Aitziber Sarobe Egiguren eta Jon Mentxakatorre Odriozola.

ELKARRIZKETA / 16

## CIRA RODRIGUEZ

Azkenaldian gero eta gehiago dira hizketarekin arazoak izaten ari diren umeak eta kasu askotan, nabarmen berandutzen ari da hizketan hasteko unea. Cira Rodriguez logopeda eta psikomotrizistak lengoaiak garatzeko, bestearen presentzia beharrezkoa duela dio, komunikazioa biren arteko topaketa baita. Hik Hasik azaroaren 25ean eta 26ean antolatu dituen *Hizketan hasi ezinik* jardunaldietan parte hartuko du Rodriguezek.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu, Olatz Lasgabaster.

Erredakzio batzordea: Mikel Agirrezabala, Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Azaleko argazkia: Orioko Zaragueta herri eskola

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANtza S.A.L

Hezkuntza Sailak onetsia (2022-11-09).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

5 EDITORIALA

Hurbilekoaren abantailak

10 GAI NAGUSIA

Proiektu komunitarioak

16 ELKARRIZKETA

CIRA RODRIGUEZ

“Lengoaiak bestea behar du, norbaiten presentzia behar du garatzeko”

22 ESPERIENTZIAK

Sormena eta euskal kultura bultzatuz

26 EKARPENAK

Matematika manipulagarria Bigarren Hezkuntzan ere erabil daiteke

28 EKARPENAK

Garun paralisia eta robotika hezigarria uztartuz

32 EKARPENAK

Hezkuntza Legean euskarazko eredu orokor eta inklusiboa jaso dadila eskatu du Kontseiluak

34 AHALDUNTZE ESKOLA

Erresilientziaren eredu bizia

36 GALDEIDAZU

Irakasle gisa, zer erronka jarri beharko genioke geure buruari Euskaraldian?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

‘Kio eta Gus’ haurrekin praktika filosofikoa lantzeko

42 ATZEKO ATETIK

Irati Garcia Iriondo

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Hezkuntza Sailak eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



zerbitzua eta lana euskaraz

Halloween Gau Beltza



# Hurbilekoaren abantailak

## editoriala

PROIEKTU KOMUNITARIOEK INGURUNE HURBILETIK ABIATZEKO AUKERA EMATEN DUTE, ETA GERTUTASUNAK BESTE INPLIKAZIO ETA PARTE-HARTZE MOTA BAT SORRARAZTEN DU. KOMUNITATEA BIZIARAZTEN DUTE.



**A**ldizkari honetako erreportaje nagusian proiektu komunitarioez hitz egiten da. Labur esanda, proiektu komunitarioak gertutik, ingurune hurbiletik abiatzen diren proiektuak dira, inguruko naturan, biodibertsitatean, kulturean, gizartearen eta gizakietan oinarritzen direnak, eta curriculum lantzeko baliagarriak direnak, aldi berean.

Curriculumaren lanketari garrantzirik kendu gabe, ingurune hurbilaren ezaugarrian gelditu eta gainean lupa jartzeak merezi du. Proiektu komunitarioen kasuan, abiapuntua ingurune naturala da, horren gaineko lanketa, biodibertsitatearen eta naturaren zainketaren gaineko kontzientzia hartzeko eta horren arabera jokatzeko. Eta naturarekin batera, gizartearen eta gizakia bere osotasunean hartzen ditu aintzat. Eremu guztiak lantzen dira proiektu komunitarioetan, baina beti ingurune hurbiletik hasiz, eta hori da azpimarratzen dena.

Krisi ekologikoaren kasuan, mundu mailakoa izanik, arazo globala da, eta sarritan, urrun geratzen den gaia eta arazoa bihurtzen da. Horrexegatik azpimarratzen da gertutik hasita, etxetik, auzotik, herritik, norberaren komunitatetik. “Gure komunitatea ez da mundua,

gure komunitatea hurbila da”, dio erreportajearen HUHEZIKO Aitziber Sarobe Egiguren Zientziak eta Teknologia arloko irakasleak. Hurbilekoak ukitzen gaitu, hunkitzen gaitu eta hurbilekoak hartzen du esanahia norberarentzat.

Horregatik da garrantzitsua hezkuntzan ere komunitatea lantzea. Eskola ingurune batean kokatzen denez, harekin harremanetan egotea, hura ezagutzea, bizitzea eta sentitzea. Hala, ikasketek beste esanahi bat hartuko dute, eta harremanek ere bai; gertuko komunitateko partaide izateak eta esku-hartzeak zentzu gehiago izango du eta erakargarriagoa izan daiteke ikasleentzat, irakasleentzat eta familientzat.

Gertutasun hori instituzioetara ere luza daiteke; zenbat eta gertuagoa izan hezkuntzaren eskumena duen erakunde publikoa, zenbat eta gertuago egon komunitatetik, orduan eta ezagutza handiagoa izango du, hurbilagoa izango da eta bestelako harremanak sortzeko aukera emango du. Gertuko kudeaketak hezkuntza komunitatea biziagotzen lagun dezake. Udalek herri ikuspegitik lan egiteak aukera berriak ireki ditzake, gertuko loturak indartzeak denok indartuko gaituelako.

**“Euskararen ikaskuntza kontzientzia nazionalean errotuta transmititu nahi ez dugun bitartean, ez goaz inora”**

Joxe Manuel Odriozola

# HILEKO IRUDIA

---





## ADOSTASUNAK DARRAI EUSKARA OROKORTZEKO ESKAKIZUNEAN

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Hezkuntza Legeari osoko ekarpena egin dio Euskalgintzaren Kontseiluak euskararen inguruan jaso beharreko artikuluen proposamen integrala aurkeztuz. 2021eko abenduan hartutako konpromisoari jarraiki —*Euskaraz hezi, berdintasunean hazi* adierazpena— hezkuntzako komunitateko Ikastolen Elkarteak, EHIGEk, HEIZEK eta Hik Hasik eta ELA, LAB eta Steilas sindikatuek bat egin dute eskaerarekin.

Berdintasunaren eta kohesioaren bidean, legeak ikasle guztiei eskalduntzeko eskubidea bermatzeko eskatu dute, euskarazko eredu orokor eta inklusiboa jaso dadila eskatuz. Aldizkari honen 32-33. orrialdeetako *Ekarpenak* atalean jasotzen da informazio xeheagoa.

**Argazkia: Euskalgintzaren  
Kontseilua**

Gasteizen, 2022ko urriaren 10ean

# HIZPIDE IZAN DA

## HEZKUNTZA PLAZARAK LEGE ZIRRIBORROA OSATZEKO ETA ZEHAZTEKO PUNTUAK AURKEZTU DITU



Hezkuntza Plazarako kideen iritziz, zirriborroaren edukian bi eremu dira funtsezkoak. Baga: hezkuntza sistemaren antolaketa eta gobernantza. Hezkuntza Akordioan 'Euskal Hezkuntza Zerbitzua' (EHZ) definitzen da, hezkuntza sistemaren konfigurazio berri baten oinarria izan litekeena, egungo sistema gaindituz eta irauliz. EHZk ikastetxeak, titularitateaz harago, eskubide eta betebeharez berdinak egingo lituzke. "Gure ustez betebeharrak eta betearazteko mekanismoak zehaztea giltzarria da". Bestalde, Hezkuntza Akordioan Udala Hezkuntza Kontseiluak sortzeaz eta funtzio garrantzitsuak betetzeaz hitz egiten zen: hezkuntza premiak identifikatzea, eskaintza banatzea eta ikasleak eskolatzeko irizpideak zehaztea, haien bereiztea saihesteko neurriak hartzea eta beste hainbat. "Lege zirriborroan, ordea, hautazko organo gisa izendatzen dira eta dagozkien funtzioak lausotu egin dira, deszentralizazio hitza bera ere desagertuz".

Hezkuntza Plazararen iritziz, "Euskal Herriko eremu administratibo ezberdinen arteko hezkuntza mailako elkarlana artikulatzeko eta horietatik abiatuta proiektu berriak pentsatu eta garatzeko erakundeak sustatu beharko liriateke legetik bertatik".

Bigarren funtsezko eremua euskalduntzea eta euskara eta euskal kulturaren transmisioa dela azpimarratu dute. "Positibotzat har daiteke ikasleek lortu beharreko euskara maila B2an zehaztu izana, edota ikastetxeetako hezkuntza proiektuei ematen zaien tratamendua. Baina ez dago helburua betetzeko ez bide, ez baliabiderik". Ikastetxeetako hezkuntza proiektuei ematen zaien tratamendua zehaztu eta indartu behar da haien iritziz, helburua betetzeko zer bide eta baliabide ezarriko diren zehaztuz. Euskalduntzea modu integralean ulertuta, ezinbestekotzat jotzen dute 'Euskararen Ikaskuntzarako eta Euskal Kultur Transmisiorako Institutua'-ren ezaugarritzea legean argi jasotzea.

Azkenik, haien ustez oinarritzko funtzioa bete beharko lukete unibertsitateek irakasleen irteera profileen, euskara gaitasunean zein Euskal Herriaren ezagutzan, kultur transmisioan, eta baita formakuntza jarraian ere.

## TUTERAN ZONIFIKAZIOA BUKATZEKO ESKATU DUTE

Euskara Nafarroako berezko hizkuntza dela aldarrikatu zuten Tuteran urriaren 22an, eta zonifikazioarekin amaitzeko aldarrikatu zuten. Zonifikazioaren aurka egitea justizia sozialaren alde egitea dela azpimarratu zuten.

## 'ESKOLA HIZTUN BILA' JARDUNALDIAN EUSKARAREN ERABILERA IZAN DA AZTERGAI

*Barnean eta kanpoan, elkarlanean* izenburupean burutu da aurten XXVI. *Eskola Hitzun Bila* jardunaldia. 400dik gora profesional bildu ziren Hezkuntza Sailak Gasteizen antolatutako bi egunetako saioan. Lehenbiziko egunean eskola barruan ahozko komunikazioa lantzeko egiten ari diren esperientziak aurkeztu ziren eta bigarrean eskolaz kanpo euskararen erabilera sustatzeko ekimenak.



# HIZPIDE IZAN DA

## EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO PLATAFORMAK DEITUTA, MANIFESTAZIO JENDETSUA EGIN DUTE BILBON



Azaroaren 5arekin manifestazio jendetsua egin zuten Bilbon Euskal Eskola Publikoaz Harro Plataformak deituta. Batetik, eskola publikoa indartzea eskatu zuten manifestariek, eta bestetik, Eusko Jaurlaritza ixten ari den Hezkuntza Legeari ezezkoa ematea. Milaka herritar batu ziren agerraldira. Manifestazioaren deitzaileak, besteak beste, EHIGE, HEIZE, Ikasle Sindikatua, Ikasle Abertzaleak, Ikama, Ikasle Ekintza, Gazte Komunistak, STEILAS, CCOO Irakaskuntza eta ESK izan ziren, eta bat egin zuten LABek, ELAk eta Ernaik.

*Euskal eskola publikoaren alde, Hezkuntza Lege honi ez!* leloa zuen pankarta eramane zuten herritarrek, atzetik milaka lagun zituztela. Kartelak eskuan: “Harro, desberdinon topagunea delako”, “Euskalduna delako, harro” eta beste hamaika mezurekin. Eta leloak ahoan: “Euskal eskola publikoa” eta “pribatua ez da publikoa” oihuak nagusitu dira, baina entzun dira “ez, ez, ez, lege honi ez”, “euskara ere publikoaren alde”, “hemen gaude publikoaren alde” eta bestelako batzuk ere.

Lau eskaera nagusi aldarrikatu zituzten. Lehenbizi, sare publikoa sendotzea eta handitzea “herritar guztientzako eskubideen bermea baita”. Horretarako, zentzuzko planifikazioa egin behar dela ikusten dute, eskola plazen eskaintza errealitatera egokituz eta sare pribatuaren gehiegiko eskaintza ez itunduz. Sare publikoari beharrezkoak dituen baliabide guztiak ematea eskatzen dute eta publikazio bideak zabaltzea sare horren parte izan nahi duten ikastetxeentzat.

Bigarren eskaera euskararen alorrean atzerapausorik ez ematea da. Hirugarren eskaera legeak guraso elkarleen eta parte-hartze organoen lana aitortzea eta toki ematea da. Eta laugarrena erlijioa ikastetxeetatik kanpo uztea.

“Denontzako hezkuntza eskubide berbera bermatzeko, gure sistemaren dualtasunarekin eta segregazioarekin amaitzeko, euskara eta euskal curriculum bultzatzeko eta laiktasun erreala lortzeko lege hau geratu behar dugu” aldarrikatu zuten manifestazioaren amaierako idatzian.

## IKASLEAK ONARTZEKO ETA ESKOLATZEKO DEKRETU BERRIA AURKEZTU DU HEZKUNTZA SAILAK

Diru publikoz ordaindutako ikastetxe guztiek plazak erreserbatu beharko dituzte ikasle zaurgarrientzat. 2023-2024 ikasturteko onarpen-prozesurako jarriko da martxan, Haur Hezkuntzatik hasita. Zaurgarritasun indizea sortu da eta helburua eragin-eremu bateko ikastetxe guztiak eremu horretako zaurgarritasun indizera hurbiltzea da, hiru ikasturtetan zehar. Eskola-plazen eskaintza benetako eskolatze beharretara ere egokitu nahi da, gaineskaintza eta azpieskaintza saihestuz.

## LEGEAREN KONTRA GREBA DEIALDIA EGIN DUTE ELA, LAB ETA STEILASEK

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Hezkuntza Legearen aurreproiektuaren aurkako greba deialdia egin dute hiru sindikatuek azaroaren 30erako Bilbon eta abenduaren 14rako Gasteizen. Eusko Jaurlaritzak aurkeztu duen lege zirriborroak “egungo hezkuntza eredu duala betikotu” egiten duela uste dute. *Publikoa, euskalduna eta propioa helburua eta Hezkuntza lege aurreproiektu honi ez, legea langileekin eraiki* lelopean egingo dira mobilizazioak.



Kataloxak atzekoz aurrera jartzen direnean, aurrean ikusten dena gerturatu ordez urrundu egiten da. Batzuetan hori gertatzen da, gerturatu ordez urruntzea. Krisi ekologikoarekin eta klima aldaketarekin antzekoa gertatzen dela ohartu dira hainbat. Mundu mailako arazoa izanik, denoi eragiten digu, baina mundua handia eta urrunekoa bihurtu ohi da. Munduko “gauzak” urrun sentitzen baldin badira, loturarik ez baldin badago, zaildu egiten da haiekiko atxikimendua, interesa, kontzientzia edo jarrera izatea. Horregatik begiratu behar da kataloxak utzita; begiekin eta ingurura. Gertuko naturarekin, gizakiekin, gizadiarekin eta komunitatearekin lotura sendoagoak sortzen dira, eta gertutasun kontzientzia eta konpromisoa horrek dakartza. Ingurune hurbiletik abiatuta etor daitezke mundu mailako aldaketak. Eta ikastetxeetan, proiektu komunitarioak martxan jarrita lortu daitezke ingurumenean benetan eragitea.

# GAIA: PROIEKTU KOMUNITARIOAK

Ingurune hurbiletik hasita eta curriculumean txertatuta

**K**risi ekologiko globala bizi dugun garaiotan, biodibertsitatearen eta gure ingurune naturalaren zaintzak berebiziko garrantzia dute. Sarritan, ordea, munduko arazo global horiek handi geratzen dira, urrun sentitzen dira, eta zaila suertatzen da inplikatzeari, gogoeta kritikoa egitea, kontzientzia hartzea eta egoeraz jabetzea, eta eraginkorrak eta praktikoak izango diren erabakiak hartzea.

Urteak dira hezkuntzan Ingurumen Hezkuntzaren lanketa abian jarri zela eta Agenda 21en barruan proiektu ugari landu dira ikastetxeetan ingurumenaren gaiari heltzeko. Baina ez da nahikoa izan. Gure gazteek etxe ondoko basoak ezagutu gabe jarraitzen dute, basoak itsasoarekin izan duen loturaz ez dakite ezer, ingurura begiratzen dute baina ez dituzte landareak ikusten —landare itsutasunaz hitz egiten da gaur egun—, ez dute inoiz saguzarrik ikusi... Ezjakintasun horrek deskonexioa dakar, izugarritzko etena, eta haustura horrekin zaila da ingurumenaren kontserbazioaren aldeko ekintzarik egitea. Gainera, oso zaila da natura-

ren kontserbazioaren aldeko benetako apusturik egitea eta benetako politikarik kudeatzea diskurtso urrun eta politikoki zuzenetan geratuz gero, ez baitauka egunerokotasunean benetako aplikaziorik. Zeren mesedetan eskatzen da biodibertsitatea kontserbatzea edo ekosistema berreskuratzea? Horregatik, beste modu batera egin behar da lanketa, ikuspegi zabalagoarekin, holistikoa-ekin, eta tokian tokitik abiatuz. Nork bere buruarekin, herri kulturarekin eta komunitatearekin dituen loturak berreskuratuz.

Curriculum berriak Garapen Iraunkorrek Helburuak (GIH) bere baitan hartzen ditu eta zeharka ingurumen gaiak curriculumean txertatzea du helburu: diziplinartekotasunaren bitartez lantzea, eta zientzia, gizarte eta giza dimentsioak jostea, guztiak haintzat hartuz. Hori dena abian jartzeko planteamendu argi eta interesgarria egiten dute HUHEZIKo Aitziber Sarobe Egiguren Zientziak eta Teknologia arloko irakasleak eta Jon Mentxakatorre Odriozola Giza eta Gizarte Zientzietako irakasleak: horretarako proiektu komunitarioak baliatzea.

“Garrantzitsua iruditzen zaigu gaia tokian tokiko natur ingurunearen izaeraren baitan lantzea, ingurune horien kontserbazio edota berreskurapenaren mesedetan, eta gizakiaren barnekotasunean sustraiturik lantzea ere bai, bestela zaila izango baita ikasleen jokabidean eragitea”, dio Sarobe Egigurenek. “Pertsonengan eta pertsonen pentsamenduan eragin nahi baldin badugu, Giza Zientzien alderdia indartu behar dugu”, gaineratzen du Mentxakatorre Odriozolak, “ez da curriculumean dauden arloak diziplinartekotasunean jartzea soilik, giza eremuan ere eragin behar da”.

Sarobe Egigurenen iritziz, “une honetan abagune ezin aproposagoa daukagu Hegoaldean. Curriculum dekretu berriak curriculumaren birplanteamenduak egitea eskatzen du eta arloak diziplinartekotasunean landu beharko direla dio. Beraz, aukera bikaina da proiektu komunitarioak martxan jartzeko, proiektu errealek eta ikasleen ingurune hurbilean kokatzen direnak direlako”. Bigarren Hezkuntzako curriculum berriko ordutegian espazio eta denbora tarteak izango dute proiektu komunitarioek, eta Ingurumen Hezkuntzari lotutako gaiak curriculumean txertatuta geratuko direnez, askoz eraginkorragoa izateko aukera irekiko da. Ikastetxe bakoitzak bere komunitateari eta gertuko ingurune naturalaren ezagutzari erantzun dion tokiko curriculumera irazi behar du eta horretarako erreminta edo bitarteko egokiak dira proiektu komunitarioak.

## Proiektu komunitarioak

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako curriculum dekretu berriaren arabera, ingurumenari lotutako proiektuek lotura curricularra izatea da xedea; hau da, ingurumenari lotutako gaiak modu paraleloan lantzea ez, curriculumean txertatuta baizik. Ikastetxe bakoitzak bere komunitateari eta gertuko ingurune naturalaren ezagutzari erantzun dion tokiko curriculumera irazi behar du, eta proiektu komunitarioak horretarako bitarteko dira. “Proiektu komunitarioak curriculumean behar bezala txertatzen baldin badira, curriculumeko gaitegi guztietan eragin dezakete, eta hori da gure apustua: hortik abiatu eta arlo guztietan egiten den lanketa zipriztintzea”, dio Sarobe Egigurenek. Begirada berria curricu-

lum guztira zabaltzearen aldeko aldarria egiten dute. Proiektu komunitarioek diziplinarteko planteamenduak egiten dituzte, begirada edo paradigma berri eta zabalagoarekin. Metodologia aktiboetan oinarritutakoak dira eta tokian tokiko curriculumak eraikitzeke baliagarriak. “Gure proposamenarekin, Natur Zientziak eta Giza Zientziak lehenetsiz, metodologia batzuk garatzea proposatzen dugu, betiere proiektuetan eta metodologia aktiboetan ardaztuta, eta horrekin tokian tokiko curriculumak eraikitzeke oinarriak jar ditzakegu. Irakasleei horretan laguntzeko prestutasun osoa dugu”, gaineratu dute Biologian doktore den Sarobe Egigurenek eta Filosofian doktore den Mentxakatorre Odriozolak.

## Proiektu komunitarioen oinarriak

- **Paradigma aldaketa: pertsonaren benetako begirada**

“Orain arte garapen jasangarria erakusten duen datu asko dago, bai mundu finituari dagokionez, bai ekonomia linealari dagokionez. Datu horiek zientzia enpirikoaren aldetik ezagutzen dira, baina giza eta gizarte eremuak ere aintzat hartzea falta da”, azaltzen du Mentxakatorre Odriozolak. Horrek ekarriko lukeen aldaketarik nabarmenena, gizakiaren ulermenean, indibiduotik pertsonara pasatzea dela azpimarratzen du: “Gaur egungo gizartearen ikuspegian, goitik behera datorren gizarte handian, indibiduok gara —ikusitako ez dago pandemiaren kudeaketan administrazioaren aldetik mezu guztiak indibiduoari zuzendutakoak izan direla; ‘jar ezazu maskara’, ‘ondo porta zaitez’...—. Gure proposamenean gizakiaren kontzeptzio integralagoa dugu: pertsona. Pertsona gizakia osatzeko era aberatsagoa eta zabalagoa dela iruditzen zaigu, beste zerbait jartzen duelako indibiduoaren eta gizarte zabalaren edo handiaren tartean: aurrena pertsona eta gero komunitatea. Bi kontzeptu horiek berreskuratzen dira proiektu komunitarioetan. Bi kontzeptu horiek erdigunean kokatzen ditugu, eta jasangarritasunaren ideia berezko duten kontzeptuak dira biak”.

Beraz, paradigma berriak triangulazio egokia egiteko aukera ematen du: ingurumenaren arloa zientziaren begiradatik, gizartearen begiradatik eta gizakiaren ikus-

“Curriculum berria aukera bikaina da proiektu komunitarioak martxan jartzeko”

Aitziber Sarobe Egiguren, HUHEZIko Zientziak eta Teknologia arloko irakaslea eta biologoa

## GAIA: PROIEKTU KOMUNITARIOAK



Aitziber Sarobe Egiguren eta Jon Mentxakatorre Odriozola HUHEZIKO irakasleak.

pegitik lantzea, non erdigunean egongo diren pertsona eta komunitatea. “Horrek begirada berria ematen digu, zeina behar-beharrezkoa den biodibertsitatearen kontserbaziorako eta berreskurapenerako. Begirada berri horren baitan, natura edo ondare naturala guztiona eta unibertsala den ondare gisa ulertzen da, ez bakoitzak aukeran duena”, Sarobe Egigurenek azaltzen duenez. “Gizakiaren balio bihurtu behar du guztiona eta unibertsala dena errespetatzea, bestela zaila da naturaren kontserbazioaren aldeko benetako apusturik egitea”.

#### • Tokian tokikoa

Krisi ekologiko globalaz hitz egiten da eta, hala da, mundu mailakoa da, zoritxarrez. Baina horrek, aldi berean, gertuko errealitateaz ahanzteko arriskua du, Sarobe Egigurenen iritziz: “Ez dugu gure inguruko bizitza, gure komunitatearena eta gure ingurunearena ezagutzen. Eta krisiaz jabetzeko eta horren aurrean benetako erantzunik emateko, hau da, geure bizimoduaren jokatibideari lotutakoak, ezinbestekoa da gizakia, pertsonak

“Indibidua pertsonara pasa behar dugu”  
Jon Mentxakatorre, HUHEZIKO irakaslea

## Garapen Iraunkorrerako Helburuak

### NBE Nazio Batuen Erakundeak Agenda 2030ean jasotako 17 helburuak

1. Pobrezi mota guztiak desagertzea mundu osoan.
2. Gosea amaitzea, elikagai segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.
3. Guztiontzat eta adin guztitan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.
4. Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.
5. Genero berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahaldunduz.
6. Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.
7. Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat.
8. Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.
9. Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusioa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.
10. Herrialde bakoitzean eta herrialdeen artean desberdintasunak murriztea.
11. Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.
12. Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea.
13. Neurri urgenteak hartzea klima aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko.
14. Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea garapen jasangarriari begira.
15. Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzea eta modu jasangarrian erabil dadila sustatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.
16. Garapen jasangarriko gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta maila guztietan erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea.
17. Ezarpen baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarriko Munduko Ituna biziberritzea.

## GAIA: PROIEKTU KOMUNITARIOAK

INGURUNE HURBILETIK HASITA ETA CURRICULUMEAN TXERTATUTA

eta komunitatea denak batera ikustea. Eta guk uste dugu hori guztia tokiko ingurunean kokatuta lortzen dela”.

Gertuko loturak galdu diren garaiotan, horiek berreskuratzearen garrantzia azpimarratzen dute bi irakasleek: “Gizarte gisa objektu bihurtu dugu natura bere osotasunean. Eta ez, natura subjektu da, elementu askorekin osatutako subjektu. Lotura horiek galdu egin ditugu, ordea, eta berreskuratu egin behar dira. Hori tokian tokiko curriculumarekin soilik egin daiteke, ezin daiteke pentsamendu eta planteamendu globalarekin egin. Ni niretzat esanguratsua denari atxikitzen natzaio, eta niretzat esanahia gertuko kontuek daukate. Gure komunitatea ez da mundua, gure komunitatea hurbila da. Are gehiago, gure zorion iraunkorra ez dugu urrutiko oasietan bilatzen; agian horien bila aritu gaitezke, baina babesa gertuago bilatzen dugu, gure komunitatean. Beraz, gertuko loturak indartzean dago koska, tokian tokiko curriculumean. Hori da planteamendua”.

Komunitateari zentzua bilatzea da bidea, azken batean, eta Mentxakatorre Odriozolak hori lortzeko gako batzuk ematen ditu: “Lehenengo eta behin, indibiduo pertsona izatera pasatzen baldin bada, komunitatearen zentzua handitu egiten da. Izan ere, indibiduo bere horretan autonomia da, hiritarra eta bere buruaren eta bere erabakien jabe dena, eta nahikoa da bera bakarrik, bera babesten duen estatu edo gizarte administrazio handirik baldin badauka. Pertsonaren kontzepzioa, ordea, beste bat da: pertsona ezin daiteke inoiz bakarrik egon, pertsonaren definizioak gutxienez bi egotea eskatzen du. Beraz, oinarrian harremana dago, norberarengan eta ingurukoengan. Pertsona subjektu komunitarioa da”. Ikuspegi aldaketa horrekin, komunitateak indarra hartzen du. “Gaur egungo pentsamendu globalizatzaileak bultzatuta, urrundu egin gara komunitatetik eta gure ingurunetik, eta proiektu komunitarioek hori berreskuratzeke alea jartzen dute”.

Proiektu komunitarioen begiradak tokiko komunitatearen zentzua zabaltzea edo tokiko testuingurua berreskuratzea dakar. Mundu globaleko krisiak erlatibizatu egin ohi dira urrun geratzen direlako; gertukoak, aldiz, ezagunak bilaka daitezke eta aberastasun hori berresku-

ra daiteke. “Zaintzeko, ezagutu egin behar da, izan saguzarra edo landarea”, gaineratzen du Sarobe Egigurenek.

### • **Diziplinartekotasuna**

Curriculum dekretu berriak hainbat diziplina barnebiltzen dituen proiektuak bultzatzen ditu eta proiektu komunitarioak horretan oinarritzen dira. Natur Zientziak, Gizarte Zientziak eta Giza Zientziak ditu oinarri eta diziplina edo eremu bakoitzaren begirada hartu eta denak uztartzen ditu, bakoitzak eskain dezakeen begirada txertatuz eta denen arteko lotura eginez. “Zientziak hainbat informazio ematen dizkigu, baina bizitza askoz konplexuagoa da eta beste arlo batzuk ere aintzat hartu behar dira”, dio Sarobe Egigurenek. “Esate baterako, goazen pentsatzera zoologiaren ikuspegitik aztertu den mundu mailako pandemiak zer arrasto utzi dizkigun pentsamenduan. Edo zein akordatzen den zerk eragin zuen COVID-19a eta zer arrisku dugun. Inor ere ez. Mundu guztia txertoarekin akordatzen da eta ez biodibertsitatearen galerarekin”. Mentxakatorre Odriozolak beste adibide bat jartzen du: “Gizakia atalka banatuta dagoela esan izan zaigu, hau da, alde batetik alderdi fisikoa eta bestetik psikologikoa edo mentala. Hori berez ez da ikuspegi integrala, bakoitza bere aldetik kontsideratzea, dena lotuta baitago. Gainera, hirugarren eremu bat gehitu beharko genioke: gizartea edo arlo soziala. Eta horri naturarena edo ingurumenarena ere bai, misterioaren dimentsioa ahaztu gabe. Alegia, gizakiak osasuntsu egoteko oreka eduki behar du alderdi guztietan: fisikoa, mentalean, sozialean eta ingurunearekiko. Horregatik da aberasgarria diziplinartekotasuna, dena hobeto ulertzeko”.

“Gure intentzioa argia da: irakasleriari proiektu komunitarioen garapenerako markoa eskaintzea. Inoizko aukerarik onena daukate irakasleek planteamendu horiekin diseinuak egiteko, curriculum berriak horretarako espazioa sortu duelako. Planteamendu curricularrak berraztertzeke, berregokitzeke, birdefinitzeke begirada eskaintzen dugu, egingo diren proiektuak ez daitezen zeharkakoak edo puntualak izan”, gaineratu dute biek. Bidelagun izateko prest daude irakasle biak eta aukerak ireki baldin badira, baliatzea eta bideari ekitea da eman beharreko pausoa.

“Pentsamendu globalizatzaileak bultzata, urrundu egin gara komunitatetik eta gure ingurunetik”

Jon Mentxakatorre Odriozola, HUHEZIKo Gizarte Zientzietako irakaslea eta Filosofian doktorea

## Garapen Iraunkorrerako Helburuak lantzeko liburuak

EHUko irakasle talde batek 'Garapen Iraunkorrerako Literaturaren Gida (1-6 helburuak)' argitaratu eta denen eskura jarria du online. Agenda 2030eko helburuak ardatz hartuta, lehen sei helburuak lantzeko egokiak diren hainbat liburu proposatzen dira.

**G**arapen Iraunkorrerako Helburuak eta Haur eta Gazte Literatura uztartzen ditu gidak, eta bi helburu nagusi ditu: batetik, literaturaren erabilera sustatzea GHI Garapen Iraunkorrerako Helburuak lantzeko eta, bestetik, bitartekariei tresnak eskaintzea literatura lan egokiak hautatzeko eta baliatzeko. NBE Nazio Batuen Erakundeak Agenda 2030ean jasotako 17 helburuetatik lehenbiziko seiak lantzeko egokiak izan daitezkeen lan batzuk bildu eta iruzkindu dituzte egileek, eta datozen urteetan gainerako helburuak lantzeko gidak plazaratzeko asmoa dute. Helburuz helburu proposatzen diren testuen bidez, haur eta gazteen ikuspegi kritikoa eraikitzen laguntzea du xede nagusi, baina literatura testuen alderdi estetiko eta literarioei ere begiratuta.

Ibilbide literario bat proposatzen da sei helburuetako bakoitzerako, eta txikienetatik gazteenetara iritsi asmoz, hezkuntza ziklo eta adin guztiak hartzeko ahalegina egin dute egileek. Askotariko generoak, egileak, irudigileak, argitaletxeak... topatuko ditu gidaren erabiltzaileak. Helburu bakoitzeko lanak bildu, hautatu eta iruzkintzearen ardura egile batek hartu du. Kasuan kasu, iruzkintzen diren lanen datuak eta ezaugarri nagusiak emateaz gainera, dagokion GIHarekin duten lotura azalarazi nahi izan dute eta, gainera, literatur lanak eskolan lantzeko proposamenak ere egin dituzte, hezitzaileek nahieran garatu, moldatu, egokitu... ditzaten edo proposamen berrietarako inspirazio iturri izan daitezzen.

Egileek ahalegin berezia egin dute euskarazko lanen eta tokiko kultura eragileen berri emateko; hain zuzen ere, 17 + 1 helburuari men eginik. Nazio Batuen Erakun-



deak Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendan 17 helburu jaso zituen arren, EHUko UNESCO Katedrak 18.a ere proposatu zuen, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna aintzatetsita. EHUk ere bere egin du helburu hori, baita gida honen egileek ere. Helburu horri eusteari berebizikoa irizten diote. Izan, NBEren Irakurketa Klubean, adibidez, GIHak lantzeko zenbait obra proposatzen dira, baina hiztun kopuru handiko hizkuntzetako obrak dira, eta gida honetan euskarazko lanei ere egin diete lekua. Sei helburu, sei egile eta sei ibilbide literario, beraz, Garapen Iraunkorrerako Helburuetara bidean eta literaturari esker denon gozagarri.

Gidaren sei egileak EHUko Hezkuntza Fakultateko irakasleak dira, zehazki Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean dabilzanak. EHUko Iraunkortasunerako Zuzendaritzak sustatutako Campus Bizia Lab programaren baitan egindako gida esteka honetan aurki daiteke: <http://addi.ehu.es/handle/10810/54613>.

Ikuspegi kritikoa lantzeko balio izateaz gain, alderdi estetiko eta literario aipagarria duten liburuak proposatzen dira gidan.



“Lengoaiak bestea behar du,  
norbaiten presentzia behar du  
garatzeko”

# ELKARRIZKETA:

# CIRA

# RODRIGUEZ

## LOGOPEDA ETA PSIKOMOTRIZISTA

Komunikazioa biren arteko topaketa da. Hizketa ere, biren arteko kontua. Lengoiak bestea behar du garatuko bada. Azkenaldian, ordea, gero eta gehiago dira hizketarekin arazoak dituzten haurrak eta hitz egiten hasteko unea berandutzen ari da, gero eta gehiago. Izan ere, haur askori bestea falta zaie. Interakzioa falta dute. Inguruan dituzten helduak urrun daude fisikoki ondoan izan arren, eta pantailen erabilera oztopo izaten da maiz interakzio

horretarako, komunikaziorako. Hizketaren berandutzeak haurren garapenaren alderdi guztietan eragiten du eta garrantzitsua da adi egotea. Presentzia behar-beharrezkoa da komunikazioa transformatzen ari den aro honetan. Hala dio Cira Rodriguez logopeda eta psikomotrizistak. 'Hizketan hasi ezinik' izeneko jardunaldiak antolatu ditu Hik Hasik azaroaren 25ean eta 26an. Bertan parte hartuko duen hizlarietako bat da Rodriguez.



**Hizketa berandutzen ari da. Espezialistak gero eta kasu gehiago atzematen ari dira. Zergatik ari da berandutzen hizketa?**

Gauza asko gertatu zaizkigu. Ziurgabetasuna, segurtasunik eza, konfiantzarik eza, isolamendua bizi izan dugu eta bizitzen ari gara azkenaldian. Horrek guztiak haur asko garapenaren oinarritzko etapetan harrapatu ditu, 0-3 eta 3-6 urte tartetean alderdi guztiak garatzen ari baitira. Hainbat faktore hartu behar dira kontuan: alde batetik COVID-19a dugu, baina pobrezia maila altuaz ere hitz egin behar dugu. Estatu espainiarrean familien % 38 pobrezian bizi da gaur egun. Pobrezia isolamendua dakar eta zaildu egiten du on line komunikazioetarako sarbidea, adibidez. Familia eta eskola ere hor ditugu. Kontuan hartzen baldin badugu komunikazioa, lengoaiaren garapena, biren arteko topaketa dela, nor dira bi horiek? Alde batetik umea dugu. Etapa jakin batean eta bere esperientziekin, esperimentatzeko, mundua ezagutzeko gogoz dagoena. Baina norekin egin dezake umeak hori guztia? Nor dago

hori egiteko prest? Zeren haurrek ere sufritu dute pandemian. Nik ustedut ziur aski helduok baino askoz ere gehiago sufritu dutela. Izan ere, adinak berekin dakartzan berezko beldurrei helduen beldurrak gehitu zaizkie.

Umeek kalera ateratzeko aukera izan zutenean mundu hutsa topatu zuten, debekuz betetako mundua, beldurtia, isolatua. Horrek guztiak eragina du garapenean, etapa guztietan. Eta gero eskolako bizitza berrabiatu zen, baina burbuila taldeetan. Nola bizi izan dute umeek hori guztia? Nork galdetu die nola dauden? Nor geratu da haien ondoan beldur horretan bidelagun izateko? Dena zientzia fikziozko filma baten antzera bizi izan dute haurrek, ezertxo ere ulertu gabe, eta izan dira beldur horretan bidelagun izateko gai izan diren pertsonak, baina ez denak. Horrek guztiak eragin handia du 0-3 urte arteko umeengan. Handiagoei ere eragin die, maila guztietan izan dira ondorioak. Ume handiagoen kasuan lengoai asko pobretu da, oso teknifikatua dago eta gainera amorru handia erakusten

dute, beldurra, haserre.

Pandemiak komunikazioaren transformazioa ekarri du. Gero eta gehiago erabili ditugu gailu digitalak gure artean komunikatzeko eta, gainera, isolamendu handia bizi izan dugu. Isiltasuna nagusitu da, baina ez da izan ikasteko aukera, hausnartzeko aukera ematen duen isiltasun hori, baizik eta beldurraren isiltasuna. Eta horrek umei ez die batere lagutzen.

**Pandemiak utzitako ondorioez gain, egunerokotasunean hizketaren berandutzea bultzatzen duten ohiturak hartzen ari al gara?**

Bai. Pandemia alderdi bat gehiago besterik ez da. Aurretik ere ikusten genuen gailu digitalen erabilerarekin transformazioa gertatzen ari zela eta pandemiak erraztu egin zuen transformazio hori. Mundu birtualerako pausoa azkarragoa izan zen eta mundu hori ezinbestekoa bihurtu zen. Baina umeek eta gizakiek, oro har, komunikazioa behar dugu, biren arteko harremana. Aparailu batek ezin du gizakia ordezkatu. Ez ditu keinu berdinak, melodia berdinak,

begirada berdina... Umeak pantaila ikusten duenean sentitu egiten du, baina zer pentsatzen du? Nor da ikusten ari den hori hitzez adierazteko, horri buruz hitz egiteko ondoan dagoen heldua? Ipuinak irakurtzen zirenean espresioa jartzen genuen, keinuak, melodiak... Kontatutakoari bizitza ematen zioten horiek guztiak. Baina nola ematen zaie bizitza pantailako ahots metalizatu horiei, arrotzak, hotzak eta urrunekoak diren ahots horiei?

Nork laguntzen dio umeari mundua ulertzen? Nolako bidelagunak dituzte gaur egun? Are gehiago haurtzaroan. Familiak bidelagun izate horretan misio garrantzitsua du, zaintzeko, gertatzen denari zentzua emateko, lasaitzeko... Eta eskolak ere bai. Komunikazioaren transformazioak eskolan ere ia irakaslearen papera ordezkatu duela ikusten dugu. Dena pantailen bidez egiten da. Baina giza presentzia beharrezkoa da, zeren lengoaiak bestea behar du, norbaiten presentzia behar du garatzeko.

**Helduaren presentzia gakoa da, beraz. Ez presentzia fisikoa soilik, baizik eta bidelagun den helduaren presentzia.**

Bai. Badira guraso asko presente egonik urrun daudenak. Egoera ekonomikoa ere kontuan hartu behar da: gurasoek lan gehiago egiten dute, urrunago daude, aitona-amona asko erresidentzietan daude... Lehen aitona-amonek bazuten komunikatzeko beste modu bat: poliki hitz egiten zuten, gauzak askotan errepikatzen zituzten... Umearen bizitzarekin bat zetorren erritmo hura. Orain umeak arrastaka eramaten ditugu nonbaitera iritsi behar dugulako, eta inoiz ez gara iristen. Denboraren zentzua ere aztertu behar dugu. Zer ulertzen dugu denbora aipatzen dugunean? Eta zer-nolako kalitatea du? Presentzia aipatzen dugunean laguntzen duen presentziaz ari gara. Presente egoteaz eta denbora eskaintzeaz. Mugak ere jarri behar dira, zeren topa dezakegu familiaren bat dena umearentzat egiten duena eta gerora ume horrek zailtasun handiagoa izan dezake frustrazioak onartzeko.

**Presentzia horretan berebiziko garrantzia du interakzioak.**

Donald Winnicotek esaten zuen ezin garela existitu bestearen presentziarik gabe. Gizakia ez dago prestatua bakarrik egoteko. Denok behar ditugu harremanak, eta are gehiago haur txikiek. Umeak bestea bilatzen du eta interakzioa behar-beharrezkoa da, oinarrizkoa. Lengoia biren arteko topaketa da, eta presente egon behar dugu.

Baina, sistemaren aldetik, egiten diren politiken aldetik inbasio handia dugu. Konektatuta egon behar dugu, dena online da. Bestetik, gurasoek zer kontzientzia dute seme-alabak izateaz? Ume bat denaz? Oso garbi izan dezakegu zaintzaren beharrak zein diren: elikadura, higie-nea, parkera ateratzea... Baina nola ateratzen ditugu parkera? Txakur txiki bat izango balira bezala? 30 urteren bueltako guraso askok, depresio handia izango lukete mugikorra kenduz gero. Zeren mugikorra erabiliz hutsune bat betetzen dute: euren existentziaren hutsunea. Gurasoekin asko hitz egin beharko genuke. Baina zer egingo dugu eskolarekin? Lehen gurasoak irakasleekin biltzen ziren. Orain, berriz, informazio guztia telematikoki jasotzen dute. Ez dago elkarrizketarik, irakasleak ez ditu gurasoak ezagutzen. Orduan, nola lagunduko diete hainbat egoerari aurre egiten? Telebistak ere ez du laguntzen. Komunikazioaren transformazio horretarako nola prestatzen ari garen pentsatu behar dugu zeren oso azkar doa: tresna bat erabiltzen ikasten dugunerako, beste bat dugu esku artean. Eta horrek umeak gaintu egiten ditu, haiek erritmo propioa dutelako.

**Esan liteke, orduan, pantailen presentzia gizakiaren presentzia ordezkatzeko ari dela?**

Alor askotan bai. Zorionez horretaz jabetzen diren pertsona asko daude, horri bestelako kalitatea ematen saiatzen direnak. Baina garraio publikoan, adibidez, beti konektatuta goaz eta horrek pertsonen arteko komunikazioa oztokatzen du. Isolamendua dakar. Eta harremana edo interakzio hori da ikasteko eta

“Kontuan hartzen badugu komunikazioa, lengoaiaren garapena, biren arteko topaketa dela, nor dira bi horiek? Alde batetik umea dugu. Baina norekin egin dezake umeak hori guztia? Nor dago hori egiteko prest?”

“Presentzia aipatzen dugunean bidean laguntzen duen presentziaz ari gara; presente egoteaz eta denbora eskaintzeaz”

“Denok behar ditugu harremanak, eta are gehiago haur txikiek. Umeak bestea bilatzen du eta interakzioa behar-beharrezkoa da, oinarrizkoa. Lengoia biren arteko topaketa da, eta presente egon behar dugu”



pertsona gisa garatzeko aukera ematen diguna.

**Zer ondorio ditu haurrengan hizketaren berandutzeak? Garapenaren zein alderditan eragin dezake berandutzeak?**

Alderdi guztietan. Haurdunalditik bertatik amak eta umeak komunikazioa dute eta umea jaiotzen denean fisikoki prest dago hitz egiteko, hainbat gauza egiteko... Ahoaren mugimenduei arreta jartzen die, eskuak deskubritzen ditu, zerbait ukitzera doa... Garapen globala da. Lengoiaren funtzioa sinbolikoa da: zerbait ikusten dut eta zentzua ematen diot, hitza jartzen diot. Horrela

hasten da komunikazioa. Haurrak, txikitatik, esperimentazioaren bidez ikasten du: ukitu behar du, hartu, begiratu, errepikatu, ezkutatu... Horrek guztiak pentsamendua eskatzen du eta, beraz, pentsamendua beharrezkoa da edozein arlotan ikasteko. Zeini eragiten dio gehien? Alderdi kognitiboari. Lengoaia ez da soilik gorputz lengoaia, hitzaren aurrekoa deitzen dugun hori. Hitzekoan ahozkoa eta idatzizkoa dago. Nola ulertzen ditugu hitzak? Entzuten ez bagaituzte, nola joango gara fonema horiek deskodetzen? Bataren eta bestearen arteko aldea bereizten? Nola has gaitezke irakurtzen eta zer ulertzen dugu irakurtzen dugunean?

Irakurketak, adibidez, dena hartzen du, umeek ikasi behar duten guztia. Jakintza zabaltzeko oinarritzko pausoak dira, baina jakintza hori erren gelditzen da bidean laguntzen ez bazaio. Eta horrek eragina du. Irakurtzen duzuna ez baduzu ulertzen, erakusten ari zaizkizuna ez baduzu ulertzen, erritmo motelagoan egiten duzu aurrera eta, kasu batzuetan, irakurketa, idazketa eta komunikazioa okertu egiten dira. Umeak ikasten ari dira eta helduok gara ikaskuntza hori zabaltzen joan dadin lagundu behar diegunak. Haien interesak kontuan hartu behar ditugu komunikazio eta harreman hori ezartzeko, segurtasuna emateko eta entzuten ari zaien norbait, ulertzen dituen norbait eta gainera prozesu hori errazten ari den norbait badela pentsa dezaten.

**Epaiketarik egiten ez duena...**

Epaitzea irakaskuntzaren pekatu handietako bat da. Ume batek ez dakiela edota ez duela kasurik egiten pentsatzen dugu, baina zer dakigu benetan umei buruz? Ba al dakigu nola bizi diren? Galdetzeraz ausartzen al gara? Gero eta gehiago jolastean dute gailu digitalekin eta gurasoei askotan esaten diet koskorrekoak eta gorputzarekin jolastea faltan botatzen ditudala. Lehen lagundu egiten zitzaien, eutsi, baina orain administrazioetik paperak eta paperak datoz, bete beharreko programazioak... Eta nola borrokatu behar da horren aurrean? Kontzientzia handia behar da, bai familian eta baita profesional gisa ere, hori guztia zalantzan jartzeko.

**Umeak berak ere bere burua isolatzeko joera izan al dezake helduaren presentzia murrizten baldin badugu?**

Nik ez dakit hori pentsatzera iritsi ote daitezkeen. Helduaren presentzia oso garrantzitsua da. Umeari espazioa eman behar zaio eta guk geurea hartzen jakin behar dugu. Modu horretan, eskolara iristean haurrak bestearen kontzientzia izango du, atxikimendu harremana ezarrita egongo da. Baina hala ez bada? Hizketari dagozkion arazo asko atxikimendu desegoki baten ondorio dira,

lotura txar baten ondorio. Ez dago arazo neurologikorik, harremanen arloan sortutako arazoak dira. Eta horrek guztiak umea isolatzea dakar. Lankide batek esan zidan duela gutxi autismo kasu asko atzematen ari direla, eta nik galdetzen dut: autismoa da ala isolamendua da? Oso erraza da diagnostikoa egitea, baina haurra nola dagoen begiratzeko jakin behar dugu, eskolara nola etorri den eta bere erritmoak eta denborak nola errespetatzen dituzkeden ikusteko. Ez da obligazio kontu bat. Errespetu kontua da. Umearekiko errespetu osoa izan behar dugu.

### **Zer egin dezakete hezitzaileek berandutzea saihesteko? Zer dago haien esku?**

Helduok haurrak esaten diguna jasotzeko eta bereizteko gaitasuna dugu eta eskolatik gauza asko egin daitezke, baina maiz oposaketak ateratzen bideratzen da gure jarduna. Eta behin lanpostua lortuta, zer gertatzen da? Bilatzeari uzten diogu? Ikasteari uzten diogu? Egiten duguna ez dugu zalantzan jarriko? Ez da soilik maila kognitiboan dardana transmititzea, harago doa: nolako harremanak ditudan, kontzeptuak nola azaltzen ditudan, gauzak nola esaten ditudan... Eta ikasten jarraitzen dudana ala ez. Ikastaroak egiten ditut puntuak behar ditudalako, ala egiten dudana zalantzan jartzeko eta berritzeko aukera ematen didan formazioa jasotzen dut? Bizitza ikasketa etengabea da eta ez badugu ezertxo ere zalantzan jartzen, ez dugu deus ikasiko. Neure buruari galderarik egiten ez badiot, zer galdera egingo dizkiot haurrari? Non kokatzen dugu umea? Ume batekin hitz egiten dugunean nola kokatzen gara bere aurrean? Makurtu egiten gara eta bere altueran jartzen gara biok presente egoteko? Umeak, adibidez, “pilota” esan dezake, baina nik gehiago eman dezaket: “pilota urdina”, edo “pilota urdin handia” esan diezaioket. Hori komunikaziorako gonbidapena da eta egin liteke.

Beharrezkoa da norbere buruarekin zintzotasunez jokatzeko arakatzeko jarraitutzeko eta borrokan jarraitu behar dugu. Eskolaren eta etxearen

artean zer antzekotasun egon daitezkeen ere begiratu behar dugu.

### **Haur batek hizketarekin arazoak dituela atzematean nola jokatu beharko genuke? Beharrezkoa al da espezialista batengana jotzea?**

Hizketarekin arazoa dagoenean, umea zein egoeratan dagoen ikusi behar dugu. Gurasoekin hitz egin behar dugu zeren batzuetan etxean hitz egiten du, eta eskola espazio berria denez han ez du hitz egin nahi izaten. Zer dagoen behatu behar dugu eta arazoak ikusten baldin baditugu, eskolako logopedarengana bidal dezakegu. Prozesu ebolutiboan ezagutu behar dugu eta espezialistarengana bidali behar dugu, jakina. Datu guztiak aztertu behar ditugu garapena globala delako eta hizketan defizita dagoen kasuetan nola ibiltzen den, ea gauzak eskatzen dituen, ahozkoa ez den lengoaiarik ba ote dagoen, buruarekin ezetz esaten ote duen... ere begiratu behar dugu. Hau da: besteekin komunikatu nahi du?

Lau urterekin jada adi egon behar dugu, zeren badira finkatzen diren hizketarako zailtasunak, eta gero zailagoa da horri buelta ematea. Medikuek, agian, normala dela esango digute, baina ez da normala haur batek hiru urterekin ez hitz egitea. Itxaron zerrendak luzeak dira osasungintza publikoan. Haur batek agian urtebete edo hortik gora itxoin behar du espezialista batekin egon arte. Konturatzen al gara zer den urtebete bizitzako etapa horretan? Itxaronaldi horretan laguntzeko gaitasuna eta gurasoekin egoteko gaitasuna izan behar dugu. Guraso asko beldurtu egiten dira eta lan hori irakasleari edo logopedari uzten diote, baina familiak funtzio garrantzitsua du prozesu horretan, eta bete egin behar du. Batzuetan portaera arazoak, atxikimendu arazoak, harremanetan arazoak... izaten dira horren guztiaren atzean. Dugun kontzientzia mailak kezkatzen nau, zeren ez dakigu sistema honek nora eramango gaituen. Eta kexatu egiten gara, baina ez ditugu tresnak ateratzen bizitzen ari garen min hori garbitzen joateko.

“Umeen interesak kontuan hartu behar ditugu komunikazioa eta harremana ezartzeko, segurtasuna emateko eta entzuten ari zaien norbait, ulertzen dituen norbait eta gainera prozesu hori errazten ari den norbait badela pentsa dezaten”

“Hizketari dagozkion arazo asko atxikimendu desegoki baten ondorio dira, lotura txar baten ondorio. Ez dago arazo neurologikorik”

“Umeak, adibidez, 'pilota' esan dezake baina nik gehiago eman dezaket: 'pilota urdina', edo 'pilota urdin handia' esan diezaioket. Hori komunikaziorako gonbidapena da eta egin liteke”

# ESPERIENTZIAK

'SORMEN DIGITALA' EGITASMOA

## Sormena eta euskal kultura bultzatuz

Ikasleen artean sormena eta euskal kultura bultzatzeko helburua du Nafarroan garatzen ari diren "Sormen digitala" egitasmoak. Sormena eta euskal kultura bultzatzeaz gain, euskararen erabilera ere hauspotu nahi dute proiektuari esker. 2022-2023 ikasturtean, hamabost ikastetxe ari dira egitasmoan parte hartzen.

**G**azteen sormena eta irudimena landu nahi dituzte "Sormen digitala" egitasmoaren bidez, eta euskal kulturaren transmisioari lekua eman nahi diote, kultura ikasle gazteengana hurbiltzeko. Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren Euskara Atalaren eta EIBZ Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroaren elkarlanaren emaitza da proiektua. Bigarren Hezkuntzako irakasle, EIBZko kide eta egitasmoaren arduradun dira Miren Oteiza eta Miren Basurto, eta haiek eman dute egitasmoaren berri. Honela azaldu du Oteizak: "Egitasmoak helburu bikoitza du: alde batetik, euskal kulturaren transmisioa egin nahi dugu, euskal kultura sustatu nahi dugu; eta, beste alde batetik, ikasleen sormen artistikoa piztu eta garatu nahi dugu. Baina bi helburu horiez gain, zeharkako helburu bat ere badugu: euskararen erabilera sustatzea. Ikasleek hori guztia euskaraz egin dezatela nahi dugu, euskara erabil dezatela euren

sormen prozesuak pentsatzeko, sortzeko, elkarrekin komunikatzeko eta abar".

Basurtok zehaztu du nola lortu nahi duten hori guztia: "Helburu horiek lortzeko, euskal kulturatik abiatzen gara, ikasleek sormena landu dezaten, euskaraz sortzeko eta horren ondorioz euskal kultura kontsumitu, bizi eta esperimintatzeko. Gazteen arreta erakarri nahi dugu, euskal kulturako erreferenteak izan ditzaten, sortzaileen ekarpena euren sormena landuz bizi dezaten eta, ondoren, lan horiek birsortu, eraldatu edo erabat iraul ditzaten".

2020-2021 ikasturtean abiatu zuten egitasmoa, zazpi ikastetxetan. 2021-2022 ikasturtean, 12 ikastetxe aritu ziren, eta, hasi dugun ikasturtean, D ereduko ikastetxe publiko guztietara zabaldu dute egitasmoa: guztira, hamabost ikastetxe ari dira parte hartzen.

DBHko 2., 3., eta 4. mailetako ikasleentzat pentsatua da "Sormen digitala", eta bi modutan landu

liteke: hautazko ikasgai modura edota diziplinarteko proiektu gisa. Ikastetxe bakoitzak erabakitzen du



Zut aldizkari digitalaren sarrerako orria.



Zut aldizkari digitalaren hainbat azal.

zein mailatan eta zein formatutan eskaini nahi duen. Era batera edo bestera lantzen dela, diziplinartekotasunari, hau da, hainbat diziplinako irakasleek parte hartzeari, garrantzia ematen diote, eta gaia bost irakasgaitan lantzea aurreikusita dago: Euskal Hizkuntza eta Literatura, Plastika, Musika, Gorputz Hezkuntza eta Teknologia.

#### Lau baliabide mota

Hori guztia aurrera eramateko, lau baliabide mota erabiltzen dituzte: lantegiak, baliabide digitalak, sortzaileen bisitak eta irakasleen prestakuntza. Lau lantegi proposatzen dituzte, eta ikasleek erabakitzen dute, irakasleekin batera, horietan parte hartuko duten ala ez: alde horretatik, egitasmoak askatasun handia uzten die ikasleei. Hauek dira lantegiak: Ezpainzapia, Handia eta maskarak, Frontoia eta Txalaparta. Haien bidez, hainbat sormen lan edo adierazpide artistiko sortzeko aukera izaten dute ikasleek, haien gustuen, interesen eta nahien arabera. Lantegiek arteaz duten ikuspegia zabaltzeko aukera ere ematen diete ikasleei. Lantegi

bakoitzean sortzen dituzten adierazpen artistikoetan, ikasleek lau hizkuntza-mota hauetako bat erabili beharko dute, eta adierazpenak horren arabera sailkatu: hitzen bidez, irudien bidez, gorputzaren bidez edota musikaren bidez adierazi behar dute sortzen dutena.

Lau lantegiek bi ezaugarri komun dituzte, Oteizak adierazi duenez: “Alde batetik, emozioa eta sentimendua bultzatzen dituzte, hortik abiatzeari garrantzi handia ematen diogulako. Bestetik, gure kultura ondarea ezagutzea nahi dugu, haiek ezagutzen duten horretatik abiatuta, material horri erabilera berriak emateko, esperimintatzeko eta sormen produktu berriak sortzeko. Tradizioan oinarritutako sorkuntza garaikidea egitea bilatzen dugu”.

Lantegi horietarako sortu zuten ikasmateriala bost sortzaileekin kontrastatu zuten: Oskar Alegria zinemagilearekin, Ion Celestino musikariarekin, Ines Osinaga musikariarekin, Leire Urbeltz ilustratzailearekin eta Oier Zuñiga dramaturgoarekin. Haien iritzia jaso, eta egindako iradokizunak materialean txertatu zituzten. Horretaz gain,

“Egitasmoak helburu bikoitza du: alde batetik, euskal kulturaren transmisioa egin nahi dugu, euskal kultura sustatu nahi dugu. Eta, beste alde batetik, ikasleen sormen artistikoa piztu eta garatu nahi dugu”

Miren Oteiza, EIBZko kidea eta egitasmoaren arduraduna

## ESPERIENTZIAK: SORMENA ETA EUSKAL KULTURA BULTZATUZ

**“Gazteen arreta erakarri nahi dugu, euskal kulturako erreferenteak izan ditzaten, sortzaileen ekarpena bizi dezaten eta, ondoren, lan horiek birsortu, eraldatu edo erabat iraul ditzaten”**

Miren Basurto, EIBZko kidea eta egitasmoaren arduraduna

Alegria, Celestino, Osinaga, Urbeltz eta Zuñiga ikastetxeetara joaten dira, eta ikasleen dinamike-tan parte hartzen dute.

Lantegietan erabiltzen dituzten ikasmaterialetan izen handiko euskal artistak bildu dituzte: Josean Artze, Mikel Laboa, Jorge Oteiza,

Gabriel Aresti... Basurtok zehaztu du, hala ere, sortzaile entzutetsuak soilik ez, hurbilekoak eta hain ezagunak ez direnak ere aintzat hartu nahi izan dituztela: “Tradizioa hor dago, baina gaur egungoak ere sartu ditugu: Leire Urbeltz, Dora Salazar, Sonakay, En tol sarmiento, Kirmen Uribe... Materiala sortu ahala, esanguratsuak iruditu zaizkigun izenak txertatzen joan gara”. Baina ospetsuak diren horiez gain, ikasleek gertuko sortzaileak aintzat hartzea nahi dute: “Sortzaile ezagun horien lana ezagutzeaz gain, ikasleek tokian tokikoari, hurbilekoari, bertakoari, auzokoari, herrikoari ere balioa eta ikusgarritasuna ematea nahi dugu. Azken batean, ohiko zerrendetan edo zirkuituetan horren ezagunak ez diren sortzaileak ere balioeste”.

Irakasleen prestakuntzari dagokionez, ikastaro bat antolatu dute “Sormen digitala” egitasmoa lantzen ari diren ikastetxeetako irakasleei zuzendua, eta ikasturtean zehar gain hauek lantzen dituzte haiekin: sormena zer den, sormena nola landu, zein den sormen prozesua, begirada aldaketa, euskal kulturaren

transmisioaren beharra, egile esku-bideak eta erabilera baimenak...

Guztia biribiltzeko eta egitasmoari amaiera emateko, urtean zehar egin dituzten sormen lanekin, aldizkari digitala osatzen dute ikasleek ikasturtearen amaieran. Aldizkari horretan, elkarriketak, bideo-poemak, abestiak, esketxak, koreografiak, argazkiak, eta beste hainbat adierazpide txertatzen dituzte.

Oskar Alegriaren hitz batzuk baliatu dituzte Oteizak eta Basurtok “Sormen digitala” egitasmoari buruzko azalpenari amaiera emateko: “Sormena landu, irudimena landu, bukaeran, euskal kultura oinarri, sormenaren bidez egindako aldizkari digitala sortzeko”. Hitz horiek laburbilduko lukete egitasmoaren mamia. Izan ere, “Sormen digitala” egitasmoaren logoan, horixe adierazi nahi izan dute: hasierako “S” hizkiak sormenaren lanketa adierazten du, eta “d” hizkiak amaierako lana, aldizkari digitala.

Sormen Digitala egitasmoan lantzen diren lau lantegietako bat da TXALAPARTA izenekoa. Tailer horrek euskal perkusio-instrumentuaren soinua du abiapuntu.

**SWT EZPAINZAPIA**  
"TXORIA TXORI" ABESTIAN SAKONTZEN

Jakin dugu Txoria txori abestiaren hitzak ezpainzapi batean idatzi zirela! A ze bitxia! Abesti hori klasean entzun ondoren, guregan sortutako omoziak, sentipenak, oroitzapenak... ezpainzapietan idatzi ditugu. Ondoren, gure klasean jarri ditugu zintzilik.

**SWT EZPAINZAPIA**  
"TXORIA TXORI" ABESTIAN SAKONTZEN

Leire Urbeltz gurera etorri zen! Durangoko Azokarako kartela nola egin zuten kontatu zigun. Kartela aztertuta, kolore oso erakargarriak zituela ikusi genuen. Leireekin tailer bat egin genuen: gure surreko lanen berrintzpretazioa berak erabiliko kolore kontrasteak erabiliz. Koloretsuak benetan!

**SWT EZPAINZAPIA**  
BIDEO-POEMAK

**Askatasun faltaren adierazpena**

Ikasturtearen aurrera doa eta gu... askatasun faltaren adierazpenarekin jo eta kol!!! Oraingoan, bideoaren bitartez askatasun falta adieraziko dugu. Horte-gure arloak:

→

Ezpainzapia lantegiaren barnean Zut aldizkari digitalean ikasleek egindako hainbat lan.



# EKARPENAK

'TXOKOMATES' LIBURUA

## Matematika manipulagarria Bigarren Hezkuntzan ere erabil daiteke

Matematika manipulagarriaren erakusleiho den 'Txokomates, txokolate zaporeko mate laborategia' izeneko liburua argitaratu dute Ana Santiago eta Lurdes Ulazia irakasleek. Bigarren Hezkuntzan matematikak modu manipulagarrian ikas daitezkeela erakusten du liburua, esperientzia oinarritutako adibideak emanez, 3.000tik gora ikaslek erakutsitakoa azalduz.

**B**ai, Bigarren Hezkuntzan ere posible da matematika eskuetatik eta gorputzetik pasatuz ikastea. Lehen Hezkuntzan manipulatzeko materiala ikustera ohitzen ari garen moduan, Bigarren Hezkuntzan ere badira modu horretara lan egiten duten irakasleak: abstrakziora pasatu aurretik eskuekin ukituz, manipulatu eta sentituz lantzen dutenak matematikako zenbakiakin eta hizkiekin adierazten dena. Ana Santiago Matematika irakasle ohia horrela jardun da jubilatuta arte, eta orain, urteetako esperientzia liburu batean bildu du, Lurdes Ulazia Lehen Hezkuntzako irakaslearen laguntzaz. Bigarren Hezkuntzan ere liburuak alboratu eta mahai gainean objektuak jarri nahi dituztenentzat lagungarri izango da *Txokomates, txokolate zaporeko mate laborategia* liburua.

Liburuaren lehen kapituluaren egileek matematika irakasteko orduan



Lurdes Ulaziak eta Ana Santiagok Legazpiko Olazabal institutuko ikasle ohiekin aurkeztu zuten liburua.

aplikatzen duten oinarrizko filosofia eta egiten dituzten hausnarketak biltzen dira. Eta luzeagoa den bigarren kapituluaren gaiez gai dinamikak, materialak eta jokoak azaltzen dira, batez ere aritmetika eta aljebra gaietakoak.

Matematika irakasten egin duen ibilbideari amaiera bikaina emateko modua izan da Santiagorentzat liburua argitaratzea. Azken urteak Legazpiko Olazabal institutuan pasazituen, 2020an jubilatuta zen arte. Auskalo zenbat plastikozko tapoi,



Abstrakziora pasa aurretik gorputzetik pasatzea, ukitzea, manipulatzeari, kutsatzea gomendatzen du Santiagok, gorputzetik pasatzen dena ez baita ahanzten.

makil, karto zati, egurtxo, globo edo adreilu erabili dituen matematikako kontzeptuak azaltzeko, baita eskailerak, hormak eta bestelako espazioak ere, Santiagorentzat, matematika gorputzetik pasa behar baita: “Matematika akademikoak, gehienetan, kontuetara, kalkulura eta algoritmoetara murriztuta geratu zaizkigu. Beraiekin batera doan ipuina edo istorioa berreskuratzea oso garrantzizkoa eta beharrezkoa da, baita gorputza, irudimena, jolasa eta matematikaz gozatzea ere”. Horregatik, Santiagok eskuak eta gorputza erabiltzera animatzen ditu irakasleak eta ikasleak: “Erabil ditzagun eskuak eta uki ditzagun matematikak; erabil ditzagun zentzumenak eta, horrela, sentitutako eta zentzuzko matematikak izango ditugu. Geure eskuetatik abstrakziora joateko, eraiki ditzagun eta erabil ditzagun materialak”.

Horixe da Santiagok azpimarratzen duen ideia: abstrakziora pasatu aurretik gorputzetik pasatzea, ukitzea, manipulatzeari, kutsatzea. “Jolas moduan hasten den prozesua da, sortu, sentitu, esperimentatu, bizi... eta horrek abstrakziorantz bultzatzen gaitu. Ereduak eta propietateak deskubritzen ditugu; azken batean, kontzeptuak orokortzea eta lengoaia matematikoa garatzea ahalbidetzen diguten arrazoibideak sortzen ditugu. Abstraitzeko, esperientzia eta esperimentatzea behar dugu, eta esperientzia sortzeko, berriz, ukitu,

eraiki, marraztu, sentitu, imajinatu... egiten dugu”.

Gainera, gorputzak ikasteko ahalmena duela gogorarazten digu Santiagok, memoria ere baduela, eta, beraz, “gorputza oinarritzko bitarteko bat da irakaskuntzan; gorputzetik pasatzen dena ez da ahanzten”.

### Matematika manipulagarriaren iturriak

*Focusingen* eta adimen emozionalean duen prestakuntzak asko lagundu dio Santiagori modu honetara lan egiten, eta umorea eta ironia ohiko osagai izan dira bere jardunean. Liburuan Kleta pertsonaiak egiten ditu azalpen eta iruzkin umoretsuak eta ustekabeak.

Hainbat autore, filosofo eta matematikariren aipuak ere biltzen dira liburuan, matematika manipulagarriaren muina eta erabilgarritasunaren lekuko:

- “Matematika zorrotza adimenaekin egiten da, matematika ederra bihotzarekin irakasten da”. Claudia Alsina, Bartzelonako Teknologikako irakaslea.
- “Riemannen matematika egiteko modua korrante berri batekoa zen, non ideiak diren nagusi kalkulua baino lehen. Riemannen kasuan, bere lanari ikuspuntu geometriko bat ematean datza”. Marina Logares, *Las geometrias y otras revoluciones*, 2018.

## Eskuekin ukituz, gorputzetik pasatuz: adibide praktikoak

- Errazagoa da ukitutakoa gogoratzea. Plastikozko tapoiak eskuetan ibiliz askoz ere errazago ulertzen dira plus (+) eta minus (-) kontzeptu matematikoak. Tapoien alde bat plus (+) izan daiteke, eta beste alde bat minus (-). “Ikasle batek tapoia eskuetan estutu eta minusen aldearekin min hartu zuen, tapoia barruko aldearekin, eta ‘minusaren makiltxoak’ esan zuen. Handik aurrera ederki gogoratzen zen zein zen minusaren alde”. Tapoiak kolore desberdinetakoak dira: gorriak, urdinak, berdeak eta zuriak. Bakoitzak objektu matematiko bat ordezkatzeko duela azaltzen du Santiagok: “Gorriek adibidez  $x$  eta urdinek  $y$ . Bi kontzeptuak desberdinak dira, eta tapoiak ere bai, gorriak eta urdinak. Aurrena, tapoi desberdinak ikusteak abstraktuak diren  $x$  eta  $y$  desberdintzen laguntzen du”.

- Institutuko eskaileratara ere makina bat aldiz joana da Olazabalgo irakaslea ikasleekin. “Maila bat zero zen, handik gorakoak plus eta handik beherakoak minus. +3ra joateko esaten banien, hiru maila igotzen zituzten; - 5 esanez gero, denak bost maila behera. Eskaileran gora eta behera, gure gorputzarekin eta sentsazioekin ikasten genuen zeroa oreka dela, positiboa zer den, negatiboa zer den, horien arteko eragiketak eta abar”.

- Globoak eta adreiluak ere erabili izan ditu: globoak, goranzko sentsazioa ematen dutenez, zenbaki positiboak adierazteko erabil daitezke; eta gorputzean adreiluak jarrita beherantz joaten garenez, zenbaki negatiboak adierazteko egokiak dira adreiluak.

# EKARPENAK

ROBOTIKA HEZIGARRIA

## Garun paralisia eta robotika hezigarria uztartuz

Lehen Hezkuntzako Gradua amaitzeko gradu amaierako lanaren barnean, Arabako ASPACE elkarteko kide diren eta garun paralisia duten hainbat lagunekin, robotika hezigarriari buruzko lantegia egin zuen Eñaut Pozok pasatu den martxoan Gasteizen. Txokoak antolatzen eta robotika lantzen aritu ziren bi orduz. Pozok dio interesa, behin eta berriro saiatzeko kemena eta aurrera egiteko ahalmena oparitu zizkiotela parte-hartzaileek.

Lehen Hezkuntzako Gradua amaitzeko osatu behar den gradu amaierako lanari esker, ikaskuntza zerbitzua metodologian oinarritutako esperientzia bizi ahal izan dut. Arabako ASPACE elkartean izan nintzen, hango erabiltzaile diren eta garun paralisi diagnostika duten pertsonen kolektiboaren gaineko lantegia eskaintzeko.

Esperientziaren nondik norakoan sakondu aurretik, ikaskuntza zerbitzua zer den laburki azaltzea gustatuko litzaidake, ekarpenaren nondik norakoak argiago uler daitezkeen. Ikaskuntza zerbitzua ikaskuntza prozesuak eta zerbitzu prozesuak uztartzen eta bateratzen dituen hezkuntza proposamena da. Helburua ongi artikulatutako proiektu bakarra sortzea da, parte-hartzaileek ikasten duten bitartean inguruko behar errealei ere ekarpenak eginez.

Argi dago egungo gizartean aro



**EÑAUT POZO  
EGIGUREN**  
Lehen Hezkuntzan  
graduatu

teknologikoan murgilduta gaudela. Hau da, teknologiak, egunerokotasunaren parte izanik eta zenbait gaitasunen garapenerako bitarteko anitz eskainiz, kultura forma eta eduki berriak sortzen ditu. Hala ere, tamalez, garun paralisia duten pertsonen kolektiboak aukera murriztu du, oro har, kultur jardueretan parte hartzeko, eta are murriztagoa alor teknologikoari lotutako edota teknologian oinarritutako ekintzen zein esperientzien parte izateko.

Horregatik, ikaskuntza zerbitzua metodologiaren bitartez eta Rakel Gamito EHUko irakaslearen gidaritzapean, garun paralisia diagnostikatuta duten pertsonen zuzendutako esperientzia berritzailea eskaintzea erabaki nuen: robotika hezigarriarekin esperimentatzeko saioa, hain zuzen ere. Nire asmoa zen gradu amaierako lana ekarpen sozial txiki bat egiteko baliatzea eta robot hezigarrien erabileran oinarritutako



proposamen didaktiko eraginkorra eta dinamikoa diseinatzea, martxan jartzea eta ebaluatzea.

Arabako ASPACEn eraman genuen aurrera zerbitzua, eta protagonistak elkarteko hamabi erabiltzaile izan ziren, guztiak garun paralisi diagnostia zutenak eta askotariko beharrak eta nahiak zituztenak. Parte-hartzaileak bi taldetan banatu genituen, eta, eta, horrenbestez, saioa bitan errepikatu behar izan genuen: goizez eta arratsalde. Saioen iraupena bi ordukoa izan zen. Berez, funtzionamendu berari jarraitu genion bi saioetan, baina, momentuko beharrek hala eskatuta, egokitzen txikiak egin genituen dinamikan. *MakeyMakey* eta *Bee-bot* robot hezigarriak erabili genituen.

#### **Dinamikaren nondik norakoak**

ASPACera heldutakoan, hango aisialdi arduradunarekin elkartu nintzen, eta ondoren, boluntarioekin. Nire burua zein laguntzaile nituen beste bi lagunak aurkeztu, eta goizeko sei erabiltzaileak heldu ziren. Erabiltzaileak biribilean jarri ziren

(boluntarioekin batera), eta hasiera eman genion saioari. Lehenik eta behin, saioa dinamizatuko genuen hiru pertsonen aurkezpena egin nuen berriro ere, eta ondoren mamiari heldu genion.

Lehendabizi, erabiltzaileek zenbait galderari erantzun zioten: ea etxean ordenagailurik baduten eta, baldin badute, zertarako erabiltzen duten; edota zein jolasetan aritzen diren ordenagailuan... Horrela eman genion sarrera gaiari. Ondoren, parte-hartzaileek saioan zehar erabiliko zituzten *Bee-bot* eta *MakeyMakey* robot hezigarriak eskuz esku pasatu zituzten, ukitzeko, probatzeko eta, azken batean, erabiliko zituzten baliabideak ezagutzeko.

Sarrera horren ostean, saioaren dinamika orokorraren azalpena jaso zuten ASPACEko erabiltzaileek: hiru txokotatik igaroko zirela —bakoitzean hogeit hamar minutu emango zituztela— eta, horretarako, bikoitza lan egingo zutela esan genien. Txoko bakoitzean, txoko horretako dinamika azaldu genien, eta, amaieran, gehien gustatu zitzaizen txokotik

berriz pasatzeko aukera ere izan zuten. Gainera, amaitzeko, saioa ebaluatu genuen guztion artean, eta egindakoari itxiera eman genion. Baina, zein izan ziren hiru txoko horiek? Dinamika orokorra ongi ulertzeko, ezinbestekoa da txokoen deskribapen sakonagoa egitea.

Lehenengo txokoa *Banana-pianoa*

**Garun paralisia diagnostikatuta dauten pertsonei zuzendutako esperientzia berritzailea eskaintzea erabaki nuen: robotika hezigarriarekin esperimentatzeko saioa.**

## EKARPENAK: ROBOTIKA HEZIGARRIA



Saioek benetako inklusioaren beharraz zein esku artean ditugun erronkez jabetzeko aukera eskaini zidaten, eta etorkizuneko irakasle gisa justizia sozialaren alde lan egiteko ardura piztu.

izenekoa izan zen. Txoko horren helburu nagusia musika eta esperimentazioa batzea zen. Hau da, txoko horretan, banana batzuen bitartez, erabiltzaileek pianoa jotzeko aukera zuten. Nola? *MakeyMakey*ari eta ordenagailuko aplikazio bati esker, banana bakoitzak musika nota baten soinua egiten zuen. Hala, erabiltzaileek banana bat ukitzen zuten bakoitzean, nota jakin bat entzun zezaketen, eta musikarekin jolasteko aukera zuten era horretan. Erabat txundituta geratu ziren banana batek soinua egin zezakeela ikusi zutenean!

Bigarren txokoa, berriz, *Penalti!* izenekoa izan zen. Txoko horretan, erabiltzaileek ondo pasatzea zen helburua. Horretarako, zilarrezko papez egindako baloi txiki bat erabiltzaileek ASPACEko hamabi erabiltzaileak benetako futbolari senti zitezkeen. Ordenagailuko pantailan atezain bat ikusten zuten, eta, zilarrezko baloia kolpatzen zutenean, atezain horri penaltia jaurtitzen zioten.

Aipatzekoa da guztiak izan zirela txokoa parte hartzeko gai baina erabiltzaile bakoitzak duen garun paralisi motaren arabera zilarrezko baloia ukitzeko modu berezia zutela: batzuek oinarekin ukitzen zuten, beste batzuek eskuarekin, boluntario baten laguntzarekin ukitu zuenik ere izan zen...

Hirugarren txokoa *Bee-bot* txokoa izan zen, eta beste baliabide baten laguntzaz egin genuen jardura: hain zuzen ere, erle itxura duen *Bee-bot*arekin. Erabiltzaileen eginbeharra erlea etxeraino gidatzea zen, laukiz osatutako ibilbidean erleak egin behar zituen mugimenduak programatuz. Esan daiteke txoko hori izan zela konplexuena; azken batean, logika ariketa konplexua egin behar zen eta, horren ondorioz, erabiltzaile guztiek ezin izan zuten eskatutakoa egin. Horientzat laugarren txokoa diseinatu, eta martxan jarri genuen.

Txoko gehigarria. *Arrainen jolasa* izena jarri genion eta, lehen bien modura, *MakeyMakey*aren oinarritzen zen. Hirugarren txokoaren ordezkaria izanik, ez zuen konplexutasun handirik, eta bertan ondo pasatzea zen helburua. Jokoa bikoteka jokatzeko zen. Txoko horretan, erabiltzaileek euren bikotekidearen aurkako partida jokatu behar zuten. Arrainak ordenagailuaren pantailatik pasatzen ziren eta, erabiltzaileek zilarrezko papez egindako sakagailua sakatzeko zutenean, pilota batek arrainak kolpatzen zituen eta puntuazio jakin bat ematen zien. Erabiltzaileetako batek 50 puntu lortzen zituenean, jokoa amaitu egiten zen.

### Balorazio positiboa


Horrez gain, erabiltzaileek, jardura bakoitzaren amaieran, txoko bakoitza ebalua zezaketen, hainbat kolore erabiliz: txokoa asko gustatu bazitzaie, berdea; erdizka gustatu baldin bazitzaie, horia; eta, azkenik, txokoa gustuko izan ez bazuten, gorria. *Banana-pianoa*, *Penalti!* eta *Arrainen jolasa* txokoak oso gustuko izan zituzten erabiltzaile guztiek. *Bee-bot*aren kasuan, berriz, gehienek oso gustuko izan zuten arren, hiruk esan zuten soilik erdizka gustatu zitzaizela.

Zeharkako balorazioari erreparatuz gero, hau da, erabiltzaile bakoitzak zein txoko errepikatu zuen aztertuz gero, ikus daiteke koherentzia dagoela parte-hartzaileek modu zuzenean balioetsitakoaren eta geroa errepikatutako txokoen artean. Aurretik aipatu dugun moduan, *Banana-pianoa* eta *Penalti* txokoak izan ziren ondoen balioetsitako txokoak, eta ekintza edota jolasa errepikatze-ko aukera izan zutenean, horiek hautatu zituzten. Tarte horretan, bi txoko horietan bildu zen jende gehien. Aldiz, soilik erabiltzaile bakar batek errepikatu zuen *Bee-botaren* txokoa, eta gauza bera gertatu zen *Arrainen jolasa* izeneko txokoa ere.

Boluntarioen zein aisialdi arduradunaren balorazioak ere oso positiboak izan ziren, eta haien esker hitzak oso motibagarriak. Azken saioaren (edo saioen) helburua zen garun paralisia duten ASPACEko erabiltzaileei robotika hezigarriarekin esperimentatzeko aukera eskaintzea, eta, lerro hauetan esperientzia moduan jaso dugun proposamen didaktiko berritzailearen diseinuari eta inplementazioari esker, elkarteko hamabi erabiltzailek hori bete eta bizi izan zuten.

### **Bizitzako balioak ere aldatzen dira**

Pertsonalki, ikaskuntza ugari ekarri dizkidan esperientzia aberasgarria izan da. Besteak beste, saioek inklusioaren pertzepzioa zein zoriontasuna ulertzeko eta sentitzeko modua aldatu zidatelakoan nago. Parte-hartzaileek euren interesa, behin eta



berriro saiatzeko kemena eta aurrera egiteko ahalmena oparitu zizkidaten, eta horrek benetako inklusioaren beharraz zein esku artean ditugun errokez jabetzeko aukera eskaini zidan, eta etorkizuneko irakasle gisa justizia sozialaren alde lan egiteko ardura piztu. Era berean, ASPACEko erabiltzaileak oso gutxirekin zeinen zoriontsu izan daitezkeen ikusteak askotan behar duguna baino gehiago nahi izaten dugula pentsatzera eraman ninduen, eta horrek

zoriontsu izateari buruzko ikuspegia aldatu zidan.

Ekarpen honi amaiera emateko, beharrezkoa da boluntarioei buruz mintzatzea, esperientzia hau eta bestelako hezkuntza, kultur edota aisialdi ekintzak eskaintzeko eta aurrera eramateko ezinbesteko delako eta garun paralisia duten pertsonen modura laguntza beharra duten beste kolektibo batzuen egunerokotasunaren oinarri direlako horrelako jarduerak. Aniztasunak, askotan, alderdi onak ditu, elkarlana esaterako, baina, aldi berean, pertsona orok gizartean partaidetza integrala izateko eskubidea bermatzeko, beharrezkoa da trataera edota erantzun indibidualizatua ere ematea beharriaz. Boluntarioek konpromisoa dute gizartearekin, eta inplikazio erreala erakusten dute. Modu desinteresatuan jarduten badute ere, trukean, ondoan duten pertsonen esker beroa eta irribarrerik politena jasotzen dituzte. Eta zuk? Nahi duzu zoriontasuna trukatu? Jarri ASPACEekin harremanetan, keinurik txikiena ere bi norabideko aukera paregabea izan daiteke-eta!



# EKARPENAK

HEZKUNTZA AKORDIOA

## Hezkuntza Legean euskarazko eredu orokor eta inklusiboa jaso dadila eskatu du Kontseiluak

Gasteizen aurkeztu zuen Kontseiluak urriaren 10ean EAEko Hezkuntza Legeari egindako osoko ekarpena, euskararen inguruan jaso beharreko artikuluen proposamen integrala. Hezkuntza-komunitateko eragile EHIGE, Euskal Herriko Ikastolak, HEIZE eta Hik Hasiko ordezkariekin, eta euskal gehiengo sindikaleko ELA, LAB eta STEILASeko ordezkariekin batera azaldu zituen proposamenaren gakoak.

**K**ontseilutik 2021eko abenduaren 16an eskaera bat egin genuen Gasteizen elkartu ginen hezkuntza eragileekin batera:

Eusko Legebiltzarrean jorratzen ari den hezkuntza hitzarmenari lotuta euskararen eremuan jaso beharrekoa aurkezteko. *Euskaraz hazi, berdintasunean hezi* izeneko adierazpenean jaso genuen eskaera.

2022ko apirilean Legebiltzarrak onartutako hitzarmenean kezka agertu genuen, izan ere, ez zuen berariaz jasotzen hezkuntza sistemak izango duen hizkuntza eredu. Horrexegatik, Kontseiluak, baina baita kezkarekin bat egin zuten hezkuntza eragileek ere —Ikastolen Elkarte, EHIGE, Kristau Eskola, EHIZE, Hik Hasi, ELA, LAB eta Steilas—, legeak zehaztapenak ongi jaso zitzala eskatu genuen.

Irailaren 14an, lege aurreproiektua aurkeztu zuten eta hezkuntza sistemak izango duen hizkuntza ereduaren inguruan zehaztapenik



**PAUL BILBAO**  
Euskalgitzaren  
Kontseiluko idazkari  
nagusia

gabe jarraitzen dugu. Gogora dezagun, birgogora dezagun, hezkuntza sistema oinarritzko zutabea dela egoera gutxituan dagoen hizkuntza baten berreskurapenean, eta ikasle guztiei aitortu eta bermatu behar zaiela euskara maila egokia lortzea ahalbidetuko dien sistema.

Urriaren 10ean Gasteizen hezkuntzako eragile nagusienekin eta gehiengo sindikalarekin batera, legearen eztabaidan proposamen berri bat jarri genuen. **Orri zuriaren gainean egindako proposamena da, euskararen betaurrekoetatik egindakoa, ikasleen eskubideak erdigunean izango dituen. Zinez uste dugulako, beharrezkoa dela euskarari buruzko proposamen integrala egitea, finean, berdintasuna eta kohesioa ditugulako jokoan.**

Zalantzarik gabe, proposamen honek badu puntu garrantzitsurik. Horrenbeste aldiz aipatu dugun zehaztasun-eza modu zehatzean jaso



dugu honako proposamen honetan: hizkuntza eredia.

Atal berezitua du hizkuntza ereduak eta honako hau jasotzen du:

1. Euskara, **berezko hizkuntza, hezkuntza sisteman irakas- eta ikas-hizkuntza normalizatua** izango da, eta jardueretan erabilera normal eta orokorreko hizkuntza izango da;
2. Hizkuntza **eredu orokor eta inklusiboaz** ari gara;
3. Eta **arreta berezia** jarri behar zaie hizkuntza ofizialetako bat (edo biak) ezagutu gabe sartzen diren ikasleei.

Horixe da gu aldarrikatzen ari garen zehaztasuna. Horixe da legeak jaso beharrekoa. Gainera, ikusi dugu hori dela eredurik arrakastatsuen. Ondoan ditudan eragileek oso ongi dakite hori. Bidea zein den badakigu, hortaz, legeak jaso dezala.

Bestalde, kontuan hartuta etorkizunean **hizkuntza proiektuek** garrantzia eta pisua hartuko dutela, horiei buruzko atala ere zehaztu dugu.

Halere, hor badago proiektu guztiek jaso beharrekoa, besteak beste, euskara ikas- eta irakas-hizkuntza hartzea, eta horretaz gain, bada azpimarratu nahi dugun oinarria: euskara gutxiago duenari euskara gehiago ematea.

Ezin onar daiteke euskara gutxiago duena euskara gutxiagorekin konformatu behar izatea. Baldintza soziolinguistikoez ari garenean,

printzipio hori aplikatzea besterik ezin da ulertu.

Atal horretan, bestalde, hizkuntza proiektuak ebaluatu eta, beharrezkoa izanez gero, egokitu beharra jasotzen da. Are gehiago, hizkuntza proiektua egokitu ezean programa kontraturik ez da sinatzerik izango.

### Proposamen gehiago

Hizkuntza ereduez eta hizkuntza proiektuez gain, beste hainbat elementu jaso ditu Kontseiluaren proposamenak.

Lehenik eta behin, curriculumari, **euskal curriculumari** bereziki, erreferentzia zuzena egiten dio: euskal dimentsioa eta dimentsio unibertsala barne biltzen dituen ikuspegia jaso beharko du, eta hainbat lanketa proposatzen ditugu horretarako. Eta hor ere irakasleen prestakuntzari arreta jarri beharko zaio.

Bigarrenik, **ikastetxeetako hizkuntza jardunari** erreparatu behar zaio, uste dugulako hor legeak lauso jokatzen duela. Horrexegatik, gure proposamenak ikastetxeetako hizkuntza jarduna ere arautzen du, ikastetxeak euskararen arnagune funtzional bihurtu daitezten, eta ikasleak euskaraz normaltasunez bizi daitezten. Horretarako, noski, langileen hizkuntza gaitasunean eragin behar da, eta hor hainbat neurri jasotzen dira, egun euskara ez dakiten langileei prestakuntza ematea, esaterako.

Horietaz gain, badira beste hainbat

## “Orri zuriaren gainean egindako proposamena da, euskararen betaurrekoetatik egindakoa”

Paul Bilbao

atal: irakaskuntzarako sarrera eta horniketa, ikastetxeetatik kanpoko eskaintza, ebaluazioa, euskararen beste lurraldeekiko lankidetzak, lanbide heziketa, kirol eta arte ikasketak... bai eta hezkuntza sistemaren helburuak eta ikasleen hizkuntza eskubideak ere.

Ekarpen integrala egiten saiatu gara, hau da, euskararen betaurrekoetatik, eskubideetatik, eta koherentsia helburu, beharrezkoak diren elementu guztiak txertatzen.

Kontseiluak ekarpen gisa erregistratu du Eusko Jaurlaritzak zabaldu-tako prozesuan. Alderdi politikoei gure proposamenaren berri emango diegu, bere egin eta haiek ere ekarpenetan jar ditzaten. Eta abenduan ikusiko dugu zer-nola jasotzen den zirriborroan.

Lege berrian euskararen gaia egoki jasotzeak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu: hezkuntza sistema da egoera gutxituan dagoen hizkuntza baten berreskurapenerako zutabea. Gurean, ikusi izan dugu zer-nolako ekarpen ikaragarria egin dion hezkuntza sistemak euskalduntze prozesuari, baina oraindik urrun gaude ezagutzaren unibertsalizaziotik.

Gizarte koherentsia zein bizikidetzak bermatzeko giltzarria ere bada hezkuntza, eta helburu horiek betetzeko nahitaezkoa da ikasleen arteko bereizkeriarik ez egitea eta derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan denek maila berdina izatea.

Hurrengo hamarkadetan indarrean dagoen legeak bai ala bai bermatu behar du euskara ikas- eta irakas-hizkuntza izango duen eredu orokor eta inklusiboa abian jarriko dela.

Ezin da aukera galdu. Ezin dugu aukera galtzen utzi.

# AHALDUNTZE ESKOLA

TEORIATIK HARAGO

## Erresilientziaren eredu bizia

2016an izan zuen mendi istripuak gurpildun aulkian bizitzera behartu zuen Montxo Lopez de Ipiña ilustratzailea. Orain, 'Aurrera begira' egitasmoaren bidez bere esperientziaren berri ematen die Araban Batxillergoko ikasleei. Teoriatik harago, eredu bizia ikusiz lantzen dute erresilientzia ikasleek.

**G**ida didaktikoa ere badute ikasleek eta irakasleek gelan erresilientziaren gaia lantzeko, baina Montxo Lopez de Ipiñak, bere azalean bizi izandakoa kontatuz, praktikan azaltzen die ikasleei erresilientzia zer den. Ikasleak erresilientziaren gaiarekin harremanetan jartzeko helburu duen *Aurrera begira* egitasmoak bigarren urtea du hau. Urkide Fundazioak bultzatutako eta Vital Kutzak finantzatutako proiektua da.

### **Aurrera begira izeneko proiektuan parte hartzen duzu. Zertan datza proiektuak?**

Nola sortu zen kontatuko dizut lehenik. Nik mendi istripu bat izan nuen eta gurpildun aulkian geratu nintzen. Istripua izan aurretik ere eskolaz eskola joaten nintzen ilustratzaile modura emanaldiak eskaintzen. Istripuaren ondoren depresioa izan nuen eta horri aurre egiteko, lehen egiten nuenari berriro heltzea proposatu zidan lagun batek. Ilustratzaile eta ipuin kontalari gisa emanaldiak eskaintzen hasi nintzen osterata txikiakin. Egitasmoa arrakastatsua izan zen eta emaitza onak utzi zituen. Urkide eskolako zuzendaria laguna dut eta hura ikusita, Batxillergoko ikasleekin gauza bera egitea proposatu

zidan. Helburua nerabeei nolabaiteko laguntza eskaintzea eta haien arazoak erlatibizatzen laguntzea zen. Aurrera egin genuen eta orain, gertatu zaidana kontatzen diet, bizi izan dudana esperientzia, eta nola egin dudana aurrera.

### **Beraz, ikasleen aurrera zoaz eta istripua izan zenuela eta horri aurre nola egin diozun azaltzen diezu...**

Bai. Lehen nituen afizioei berriro nola heldu didan kontatzen diet. Bata mendia zen eta mendiak ematen dizun guztia, mendizaleok

dugun grina, mendirako beharra, sufrimendu hori... Bestea, ilustrazioak. Istripuaren ondoren ikusi nuen irudiak egitea flotagailua zela niretzat. Kosta zitzaidan berriro marrazteari ekitea baina eginez eta eginez, lortu nuen.

### **Nola hartzen dute ikasleek? Hitzaldi teorikoak entzuten ohituta gaude, baina zure kasuan erresilientziaren eredu bizia ikusten dute begien aurrean.**

Lehen pertsonan kontatzen diet bizi izandakoa. Proiektu hau planteatu





Montxo Lopez de Ipiñak egindako ilustrazioak.

zidatenean entzun nuen lehen aldiz *erresilientzia* hitza. Lagunek esaten zidaten erresilientzia handikoa naitzela baina hori zer zen ez nekienez, Interneten begiratu nuen. Orduan ikusi nuen erresilientzia arazoan aurrean aurrera egiteko gaitasuna izatea dela. Orduan konturatu nintzen baietz, gaitasun hori badudala. Ikasleei galdetzen diedanean haiek ere baietz esaten dute. Ikasgelan solasaldia egiten dugu: haiek galderak egiten dituzte, nik erantzun, eta une horretan konexioa lortzen dugu.

**Zeure egoerak berak sinesgarritasuna, errealdismoa ematen baitio esaten duzun horri.** Bai. Eta horrelako egoera batean dagoen pertsona noraino hel daitekeen ikusten dute. Nola nagoen eta noraino heldu naizen zuzenean ikusten dute.

**Hitzaldiak irauten duen bitartean irudiak egiten dituzu. Zer azaltzen duzu bertan?**

Bi muntaia egin ditut. Lehena istripuaren ondoren egindakoa da eta irudiak nahiko traketsak dira. Irudi horietan istripuaren ondorengo gertaera guztiak azaltzen ditut: istripuaren unea eta ospitaleko garaia. Beste muntaietan denborak aurrera egin ahala sentitzen dudana bizitza berria azaltzen dut. Gaur egun egiten ditudan binetak erakusten ditut.

Beti ere, umorez azalduta. Garapena ikusten dute, beraz, egindako aurrerapena.

**Bigarren urtez lantzen ari zareten egitasmoa da *Aurrera begira*. Gaur**

**gaurkoz, nolako balorazioa egiten duzu?**

Oso ona, eta gainera on egiten dit. Ikasleek balorazio ona egiten dute beti, oso gustura egoten direla diote, eta horrek asebetetzen nau.

## Ikasleen balorazioak

Ikasleak txundituta gelditzen dira Lopez de Ipiñaren esperientziarekin eta miresmena sentitzen dutela diote. Hona hemen egindako balorazio batzuk:

- Enpatia sentitu dut eta hunkitu nau aurrera nola egin duen ikusteak. Miresgarria da.
- Harrotasuna sentitu dut oztopo bakoitza nola gainditu duen ikustean. Eredu paregabea da. Gauza txikiak balioesten lagundu dit. Mila esker.
- Bizitzan hartzen ditudan eta beharrezkoak ez diren arriskuei buruz pentsarazi dit. Ea benetan merezi ote duten. Izan ere, ez dut irudikatzen nire bizitza halako zerbait gertatuz gero.
- Nork bere mugak gainditzeari buruzko istorio miresgarria izan da. Gauzak beste modu batera ikusarazi dizkit.
- Uste dut hori gertatuko balitzait ez nintzatekeela gainditzeko, bizitzeko gai izango. Meritu handia du, ez baitu amore ematen.

# GALDEIDAZU

## IRAKASLE GISA, ZER ERRONKA JARRI BEHARKO GENIOKE GEURE BURUARI EUSKARALDIAN?

2022ko azaroaren 18an hirugarren Euskaraldiari ekingo diogu *Hitzez ekiteko garaia* lelopean. Hitza delako ariketa honen langai, tresna eta helburu, herritarrak eta era guztietako entitateak aktibatu nahi ditugulako euskararen erabileran urratsak egin ditzaten, eta pandemiak suposatu duen itxialdi, geldialdi eta elkarrengandiko urruntzearen ondoren, berriro kaleak euskaraz hartzeko garaia dela uste dugulako.

Euskaraldia, hizkuntza-ohiturak aldatzeko, edo euskarazko jardunari eusteko proposamena da. Ez da euskararen aldekatasuna erakusteko kanpaina bat, hiztunen praktika errealean eragin nahi duen ariketa soziala baizik. Horretarako bi rol desberdin proposatzen dira; *Ahobiziek* euskaraz egingo diete euskaldunei, lehen hitza euskaraz egingo dute beti, eta solaskideak ulertzen duen neurrian euskarari eutsiko diote elkarrizketa elebidunen bidez. *Belarriprestek*, berriz, euskaldunak beraiekin euskaraz egitera gonbidatzen dituzte, eta egoeraren edota ezagutza-mailaren arabera, beraiek, euskaraz edo erdaraz egingo dute.

Bestalde, joan den ediziotik, era guztietako entitateak gonbidatu ditugu ariketan parte hartzera *Ariguneen* bidez. Ariguneak sortzeko, partaide guztiek, gutxienez, euskaraz ulertu behar dute, gehienek



onartu behar dute ariketan parte hartzea eta zuzendaritzen edo arduradunen oniritzia izan behar dute. Era horretan, euskaraz egiteko leku erosoak, baimenduak eta seguruak sortzen dira. “Estres linguistiko”rik gabeko gunekak lirateke.

Testuinguru honetan, irakasleek Euskaraldian beren buruari zer erronka jarri beharko lioketen erantzuten ahaleginguduko gara lerrotan.

**GOIATZ URKIJO**  
Euskaraldiko  
koordinatzailea



**KIKE AMONARRIZ**  
Euskaltzaleen  
Topaguneko  
lehendakaria



### Norbanako gisa

Irakasleek, lehenik eta behin, beste herritar guztiek bezala, *ahobizi* edo *belarriprest* rola aukeratuta har dezakete parte Euskaraldian. Hori da oinarrizko urratsa, baina, oso urrats garrantzitsua.

Irakasleek beraiek, erronka pertsonalak planteatuz ditzakete beren ingurunean (familia, lagunak, herria...), ikastetxean edo maila orokorrean. Eta ingurukoak ere animatu ditzakete ariketan parte hartzera.

Euskaraldian txapa jantzi duten pertsona gehienek bezala, izango dituzten bizipenek eta lorpenek, bali handiko materiala osatuko dute ikastetxeetako lanari eta ikasleekiko nahiz irakasleekiko harremanei begira.

### Ikasleen aurrean

Euskaraldian parte hartzen ari den irakasleak, ikasleei ariketaren zentzua azal diezaike: zergatik egiten den Euskaraldia, zergatik den horren beharrezkoa gurea bezalako egoera soziolinguistikoko batean, zer diren hizkuntza-ohiturak edo estres linguistikoa, ohitura horiek nola aldatu daitezkeen eta abar.

Ikasleei azal diezaike ere, Euskaraldia 16 urtetik gorako hitzunei zuzenduriko ariketa dela, hizkuntzaren biziberritze-prozesuan helduek duten erantzukizuna nabarmendu nahi delako. Askotan, euskararen berreskurapenean, fokua haur eta gazteengan jartzen da, eta agerikoa da, haur eta gazteek haien hizkuntza-ohiturak aldatuko badituzte eta euskaraz egingo badute, ezinbestekoa dela horretarako espazio eta aukera egokiak eta erosoak sortzea, eta horren ardurarik handiena helduen belaunaldiak du.

Idea hauek, eta beste batzuk, sakonxeago jorratu genituen 2018ko azaroan **Hik Hasi** aldizkarian bertan *Euskaraldia: herritarren hizkuntza ohituretan eragiteko ariketa soziala* artikuluan. Bertara jo dezakezue informazio gehiagoren bila.

Lekukotza pertsonala ere eman dezakete irakasleek, beren biografia eta bizipen linguistikoak ikasleekin partekatuz, Euskaraldian beren buruei jarri dizkieten erronkak



azalduz, eta haien eta gelakideen hizkuntza-ohituren inguruan hausnartuz.

Hizkuntza-ohiturez gain, Euskaraldiak aukera ematen du hizkuntzekin loturiko bestelako gaiak ere joratzeko:

- Geletako eta gure herrietako aniztasun linguistikoa. Munduko aniztasun linguistikoa eta une honetan bizi duen arriskua. Biodibertsitatearen galera eta hizkuntza-aniztasunaren galera hizkuntza-ekologiaren ikuspegitik...
- Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoen aniztasuna. Esku artean ditugun datu soziolinguistiko berriak (Soliziolinguistika Klusterraren kaleko neurketa, zentsuaren azken datuak...).
- Euskal Herriko euskararen aldaerak eta hizkeren ugaritasuna. Hizkera guztien balioa, familia eta ingurune erdal-dunetatik datozen haur eta gazteen hizkeren balioa nabarmenduz. Hitzunen autoestimua linguistikoa eta konplexuak, eta beraiek gainditzeko arrazoiak eta bideak...
- Euskara erabiltzeko aukerak, zailtasunak eta arrazoiak.
- Euskarazko kultur-eskaintza: zer dagoen, zein neurritan ezagutzen den...
- Euskararekin duten harremana lantzea ere interesgarria

izango litzateke. Erabiltzen dute? Horrela bada, zergatik? Eta gutxi erabiltzen badute, zergatik gertatzen da hori? Hizkuntza bat erabiltzeko, hizkuntza horrekiko harreman ona ere ezinbestekoa baita.

Ariketa 16 urtetik gorakoentzat izan arren, oso onuragarria da haurrek eta nerabeek helduak zertan ari diren jakitea. Izan ere, horiek izango dira etorkizuneko euskal hiztunak eta euskararen erabilera-aren motibazioa denon artean sustatzea garrantzitsua da. Ildo beretik, azpimarragarria da haurrek eta gazteek helduengan eragiteko duten gaitasuna: *xaxatzaille* rola eman izan diegu aurreko bi edizioetan, eta rol hori bete dezakete etxean, dendetan edo eskolaz kanpoko jardueretan. Horrekin lotuta, *Haur eta nerabeek egiteko esanguratsua daukate Euskaraldian* izenburupean

**Ariketa 16 urtetik gorakoentzat izan arren oso onuragarria da haurrek eta nerabeek helduak zertan ari diren jakitea.**

**Irakasleen arteko ohiko harreman-hizkuntza euskara bada, eredu egokia emango diegu ikasleei, baina ez bada horrela, nekez izango dugu autoritaterik, beraiei euskaraz egin dezaten eskatzeko.**

erabilgarri dauden unitate didaktikoak euskarri egokiak izan daitezke lanketa horretarako.

### Irakasleen artean

*Haurren aurrean, helduak heldu* izenburua jarri genion, haurren ingurua osatzen duten kolektiboetako pertsonak beren hizkuntza-ohiturak aldatzeko helburua zuen egitasmoari. “Zer ikasi, hura ikasi” esaera zaharrak iradokitzen duen bezala, haurrek eta gazteek arau sozial nagusira egokitzen dute haien mintzajarduna, nagusiek eskaintzen dieten ereduari jarraiki. Arrue Ikerketaren datuek argi islatzen dute egoera da hau.

Haurren eta gazteen eredu horien artean, gurasoek eta irakasleek berebiziko garrantzia dute. Irakasleen arteko ohiko harreman-hizkuntza euskara bada, eredu egokia emango diegu ikasleei, baina ez bada horrela, nekez izango dugu autoritaterik, haiei euskaraz egin dezaten eskatzeko. Eta zoritxarrez, askotan aipatu izan digute irakasleek, ikastetxeetako euskara arduradunek eta ikasleek beraiek, irakasleen hizkuntza-portaera dela hobetu beharreko aspektu nabarmenetako bat, irakasleen euskararen erabilera sustatu nahi bada. Ez da ikastetxe guztien egoera, baina, nabarmena da zer hobetua badagoela

Euskaraldia oso garai egokia da, ikastetxeetan, maila horretan suma daitezkeen hutsuneen inguruko hausnarketa bultzatzeko, irakasleak motibatuz eta erabakiak hartuz.

### Ikastetxean

Ikastetxeak, klaustroak edo departamentuak *Arigune* bihurtzea bide emankorra izan liteke, batez ere, irakasleen arteko euskarazko jarduna bermatua ez dagoen kasuetan.

Euskararen inguruko hausnarketa hori, bestalde, ikastetxeetako hezkuntza-komunitate osoan zabal daiteke, baita jarduera akademikotik kanpoko esparruetara ere: jangeletan edo garraioetan, eskolaz kanpoko jardueretan, guraso-elkarreetan... Euskaraldiak proposatzen duen ariketa esparru horietara zabaltzea guztiz onuragarria izango da.

Gurasoak dira, modu berezian landu daitekeen beste multzoa. Irakasleek Euskaraldian parte hartzera animatu ditzakete, euskaraz ulertzen duten edo erdararako joera duten gurasoak *belarriprest* izatera, eta aukera dutenak *ahobizi* jokatzera. Etxeetako hizkuntza-ohiturak aztertu daitezke eta euskararen erabilera sustatzeko neurriak har ditzaten gomendioak eman...

Guraso-bileretako hizkuntza-irizpideak aztertu eta berauek euskaraz egiteko proposamenak egin eta

neurriak ere har daitezke, behar dutenei itzulpena eskainiz...

### Ondorioak

Euskaraldia hizkuntza-ohiturak aldatzeko proposamena da. Baina, Euskaraldia, gelan, klaustroan edo hezkuntza-komunitatearen edozein eremutan eta esparrutan hizkuntza-aren inguruko hausnarketa egiteko eta egitera animatzeko helduleku eta aitzakia ezin hobea ere bada.

Euskaraldiari esker izandako lorpenak ikasleei eta hezkuntza komunitate osoari ezagutaraztea oso garrantzitsua izango da, aurrera begira, ikasleek, irakasleek, bestelako langileek eta gurasoek euskararen erabilaren aldeko pausoak eman ditzaten.

Azkenik, nabarmendu nahi genuke, Euskaraldia abenduaren 2an amaitzen bada ere, egun horietan aldatu diren praktikak eta izan diren lorpenak iraunarazteko eta hobetzeko lanak ikasturte osoan zehar jarraitu behar duela. Euskaraldiak jauzi bat emateko oinarria, testuingurua eta baliabideak eskaintzen ditu. Lortutakoari eustea, eta ahal den neurrian hobetzea, izango da hurrengo hilabeteetako helburua.

Hau guztia dela-eta, irakasle eta ikastetxe guztiak animatzen zaituztegu Euskaraldian parte hartzera! Ikastetxeetan ere *Hitzez ekiteko garaia* delako!



# ARGITALPENAK



**EZAGUTU ZURE SENTIMENDUAK!**  
Beth Cox / Natalie Costa - Vicky Barker

## ELKAR

Lagunak eta sentimenduak oso lotuta daude. Sentimenduak hobeto ezagutzen ikasi ahala, lagunetik harremanak ere sendagoak dira. Eta norbere burua eta emozioak ulertzeko gai izateak, haurrak ahalduz ditu. Hainbat jarduera jaso dituzte, haurrek beren buruan konfiantza garatzeko eta harremanak hobetzeko pentsatuak.



**GARATU ZURE KONFIANTZA!**  
Beth Cox / Natalie Costa - Vicky Barker

## ELKAR

Konfiantza muskulu baten modukoa da. Zenbat eta gehiago landu orduan eta sendagoa da. Liburu honetako tekniken bidez, haurrek konfiantzaz jarduteko pausoak emango dituzte. Hainbat jarduera jaso dituzte, harremanak kudeatzen ikasteko, hutsegiteak onartzeko eta ikasketa gisa hartzeko lagungarri izango direnak.



**EZ GARA JAITSIKO!**  
Leire Bilbao - Irrimarra

## KATXIPORRETA

Marimotots zuhaitz batera igo da lurra hobeto ikusteko. Pirritzek eta Porrotzek atzetik jarraitu diote, eta zuhaitzez zuhaitz espero gabeko lekutara helduko dira. Alboan erakundearen *Amazonia gara* kanpainaren barruan kokatu dute *Ez gara jaitsiko!* proiektua. Xabier Zabalak jarri die musika disko-liburuko abestiei.



**OPARI EZBERDIN BAT**  
Marta Azcona - Rosa Osuna

## KALANDRAKA-PAMIELA

Dezepzioari buruzko gogoeta bat da liburua eta haurrek irudimenari esker gauzarik xumeenarekin gozatzeko duten berezko ahalmenaz ari da. Edonon egon liteke altxor bat ezkutatuta eta edozerk balio dezake ongi pasatzeko. Tristanez oparitu dion oihal zatiak gauza askotarako balio duela ikusiko du Martxelok.



**HAU NEURE ZUHAITZA DA**  
Olivier Tallec

## TXALAPARTA

Maite dut zuhaitz hau. Neure zuhaitza da, dio katagorri xarmantak. Maite dut neure pinaburuak jatea, neure zuhaitzaren gerizpean. Neure zuhaitza da eta neure pinaburuak. Zer egingen dut neure zuhaitza eta neure pinaburuak besteengandik ba besteko? Jabetza pribatuaren auzia du hizpide liburua.



**GAXUXAREN KLARION MAGIKOA**  
Alvaro Beñaran - Oihane Beñaran

## HIK HASI

Haurren beldurrei buruzko ipuina da *Gaxuxaren klarion magikoa*, 2 eta 6 urte bitartean agertzen diren beldurrei aurre egiten laguntzeko ipuina. Gaxuxak klarion magikoa erabiliko du pertsonaia beldurgarriak (otsoa, sorgina, mamua eta munstroa) giltzapean sartzeko eta bere beldurrak uxatzeko.

# PROPOSAMENA

## ‘Kio eta Gus’

### Haurrekin filosofia lantzen

Praktika filosofikoa bultzatzeko euskaraz prestatu den lehen Haur Filosofia materiala argitaratu dute Arizmendi ikastolak eta Filosofia Faktoriak. Eleberri bat eta gidaliburua lagun, haurrei beren kabuz pentsatzeko erronka eskaintzea da helburua.

**G**aur egun asko baloratzen da nork bere kabuz pentsatzea, kritikoa izatea eta jasotzen den informazio uholdearen aurrean erne egotea. Abilezia horiek garatzen laguntzen du praktika filosofikoak. Horren jakitu izanik, material interesgarria bezain erabilgarria argitaratu dute Arizmendi ikastolak eta Filosofia Faktoriak. Batetik, Matthew Lipmanen 8-10 urte bitarteko haurrei zuzendutako *Kio eta Gus* eleberri filosofikoa itzuli eta egokitu dute. Eta bestetik, horren osagarri, egile beraren lanean oinarrituta, *Munduaren aurrean harritzen* gidaliburua ondu dute irakasleentzat. Material biek in ikasgela ikerketa-komunitate bihurtzea bultzatu nahi dute. Horretarako, elkarrizketa filosofikoa eta haur eta nerabeen pentsamendu konplexua bultzatzeko ariketak proposatzen dira.

Urteak daramatza Filosofia Faktoriaren sortzaile Miren Camisonek Arizmendi ikastolan haurrentzako filosofia tailerrak eta prestakuntza ikastaroak ematen. “Gogoetarako



eta elkarrizketarako gaitasuna garatzen lagundu nahi dugu, bizitza pertsonalean eta kolektiboan eragiteko”, dio Camisonek. “Eta material berri honek bide hori jorratu nahi duen orori laguntza emango dio”.

Matthew Lipman *Philosophy for Children (Haurrentzako filosofia)* hezkuntza proposamenaren egilearen lanean oinarritu dira material hau egiteko. “Eleberria 8-10 urte

bitarteko haurrei zuzendua da eta ikuspegi euskaldunetik moldatu dugu, guretik abiatuz munduaren irakurketa kritikoa eta gogoeta egiten ikas dezaten”. Horrekin batera, eleberriaren osagarria da irakasleentzat edo adin horretako haurren bidelagun direnentzat prestatu duten gidaliburua: *Munduaren aurrean harritzen*. “Konfiantzaren Pedagogia garatzen duen hezitzaile

oro haur eta gazte filosofiaren aukera metodologikoaz trebatu dadin egokitu eta euskaratu dugu Lipmanen lana”, zehazten du Camisonek. “Beste hitz batzuetan esanda, metodologia filosofikoa lantzen duen materiala da”.

### Eleberriaren irakurketa

*Kio eta Gus* eleberriaren protagonistak fikziozko bi haur dira. Gusek pertzepzioaren desgaitasun bat dauka, ez du ongi ikusten. Baina, halere, munduan murgiltzeko duen gaitasunaz harro dago eta ez du bere buruaz gupidarik. Kiorekin dituen elkarrizketetan sendo agertzen da. Haur biek mundua esperimentatzeko eta ulertzeko duten modua ez da berbera. “Interesgarriena haurrei edo ikasleei ikuspegi ezberdintasun horiek erakustea da”, Camisonek dioenez. “Kontura daitezen, ikusmenaren pribilegioa dutenek, ez dutela horregatik munduaren funtzionamenduaren ezagutza zorrotza zertan izan”.


Hurrek txandaka irakurri ditzakete eleberriko pasarteak. Taldekako irakurketan haurrak irakurketa, hizketa eta entzutearen konbinazioan sartzen dira. Ondoren, helduak elkarrizketan jarraitu beharreko testuingurua finkatu dezake, eta aldi berean, haurrei hausnarketarako elkarrizketa eredu bat eskaintzen die. “Irakurketaren ondoren, haurrei eskatzen zaie zehaztea zer iruditzen zaien interesgarria irakurtzen ari

diren pasarteetan. Horrek elkarrizketarako gaiak izendatzeko aukera ematen du”, azaldu du Camisonek. “Sortzen den elkarrizketaren bidez, irakasleak, ongi deritzonean, gidaliburuak eskaintzen dituen ariketak, elkarrizketa eta ikerkuntza proiektuak sar ditzake. Horrela, zenbait gai lantzeko eta hizketagai duten pasartearen esanahia argitzeko behar diren pentsamendu trebetasunak indartuko dituzte”.

### Gidaliburuaren orriz orrikoa

Gidaliburuaren hasieran metodologiari eskaintako kapitulu bat dago eta bertan zehazten da nola erabili eta landu eleberri filosofikoa ikasgelan, zein den irakaslearen rola, eta zer egin daitekeen ikasle guztiek elkarrizketa filosofikoan parte har dezaten. Ondoren, eleberriko atalen lanketarako elkarrizketa filosofikoak, ariketak, ikerkuntza proiektua, zoologia eta literaturako proposamenak, jolasak eta ariketa artistikoak eskaintzen dira. Lipmanen euskarazko bertsio honi Camisonek idatzitako *Artearen bidez pentsatzen* eranskina gehitu diote. Eranskinak *Kio eta Gus* eleberrian agertzen diren gaiak hainbat arte diziplinen bidez sakontzeko aukera eskaintzen du.

Kapituluak irakurri eta horiei buruz hitz eginez, haurrei beren kabuz pentsatzeko erronka eskaintzea da xedea, eta haurrak arrazoitzera animatu nahi dira.



### ‘Kio eta Gus’ eleberria ‘Munduaren aurrean harritzen’ gidaliburua

Haur Filosofia lantzeko materiala

#### Argitaratzaileak:

Filosofia Faktoria eta  
Arizmendi ikastola

[arizmendi@arizmendi.eus](mailto:arizmendi@arizmendi.eus)

[www.filosofiafaktoria.eus](http://www.filosofiafaktoria.eus)



# ATZEKO ATETIK



## EZBEHARRETIK BERRIKUNTZARA

**IRATI GARCIA IRIONDO**

PASAIA-LEZO LIZEOKO DBH 4. MAILAKO IKASLEA

**L**urrikara batek astindu du Euskal Herria eta ez dago gure inguruan azken urte honetan izandako lurrikarak kaltetu ez duen pertsonarik, eraikuntzarik eta herririk. Orain, berreraikitze garaia da”, entzun da irratian. Izua zabaldu da gure herrian Pasaia jasan duen birrintetaren eraginez. Lurrikarek gugandik urrun gertatzen diren hondamendiak direla dirudite, gertutik eragiten gaituzten arte. Orduan, genuen bizi-modua galtzeko beldurra sentitzen dugu denbora tarte zabal batez.

Baina orain kezka albo batera utzi eta aurrera bota behar dugu begirada: zer egingo dugu etorkizunean? Dena berreraiki? Ezer gertatu ez balitz bezala jokatu? Hala bada, hobekuntzak egiteko aukera ezin hobea da gure parean duguna.

Noski, ospitale, etxebizitza, anbulario eta abar berreskuratu beharko genituzke lehenik, baina, ikasle izanda, ez dira halako eraikuntzak nire hobetzeko proposamenak jaso

beharko lituzketenak. Hortaz, ikastola berreraikitze dugun aukeraz hausnartu nahiko nuke.

Kaletik zoazela topatzen duzun jendeari ikastolaren definizioa eskatuko bazenio, ikasleak ikastera doazen eraikina dela esango lukete gehienek, ahaztuta baitute umetan egun erdia bertan igarotzen zuteneko garaia. Nire ustez kontua ez da horren sinplea. Alde batetik, jende horrek arrazoi du ikastolaren eginkizun nagusietako bat klaseak ematea dela esatean, eta badira horretarako ezinbestekoak diren zenbait instalazio. Hots: mahai, arbela, apal eta beste tresna eta teknologia batzuek hornituriko ikasgelak, laborategiak... Baina arreta guztia ez da irakaskuntzarekin loturiko alderdietara bideratu behar, ikasleen aisialdirako eremuak lantzeak ere nahitaezko garrantzia baitu.

Izan ere, zer gertatuko litzateke ehunka ikasle sei orduz jarraian lau pareten artean egotera behartuko bagenitu? Jolasgarai zein jangela

orduetan igarotzen duten denboran eroso egoteko inguruneak behar dituzte, eta ez naiz patio eta parke arrunt batzuen gainean hitz egiten ari; liburutegi, frontoi, egongela, kantxa eta abarrez baizik, adin desberdinetako ikasleek haien astialdiko denbora nahi duten lekuan xahutzeko aukera izan dezaten.

Badira klase ordu luzeen ondoren burua lasaitzeko kirolen bat praktikatzea gustuko duten ikasleak, eta, aldi berean, hurrengo egunetan dituzten zereginak patxadan aurreratzea nahiago dutenak. Zailtasun desberdinetako gazte guztientzat egon beharko luke espazioa: ikasten, atsedean hartzen, jolasten eta futboleko ari direnak eremu berean bildu beharrean.

Ikastola berreraikitze aukera aurrean dugun honetan, ingeniari eta diseinatzaile profesionalen gain, ikasleak gure ideiekin elkarpenak egin beharko genituzkeela uste dut, gu baikara eraikuntzari erabilera eta bizia emango diogunak.

hik hasi  
JARDUNALDIA

# HIZKETAN HASI EZINIK

Azaroak 25 (BEC) eta azaroak 26 (Donostia)



Cira Rodriguez

Komunikazioaren eta  
hizkuntzaren zentzua



Marijo Ezeizabarrena

Euskara asko eta euskara  
gutxiago erabiltzen duten haur  
euskaldunen hizkuntza garapena



Nekane Galparsoro

Hizkuntzaren garapena sustatzen



"Gaxuxaren klarion magikoa" hauren beldurrei buruzko ipuina da, 2 eta 6 urte bitartean agertzen diren beldurrei aurre egiten laguntzeko ipuina. Gaxuxak klarion magikoa erabiliko du pertsonaia beldurgarriak giltzapean sartzeko eta bere beldurrak uxatzeko. **Alvaro Beñaran** psikomotrizistak eta **Oihane Beñaran** ilustratzaileak sortutako liburua.